

GASTEIZKO KULTURAREN PLAN ESTRATEGIKOA

*Entzun
eta egin*




**VITORIA
GASTEIZ**
green capital




Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala


Vitoria-Gasteizko Udala

Kultura eta Hezkuntza Saila

 vitoria-gasteiz.org/kultura

 infocultura@vitoria-gasteiz.org

 @vg_kultura

 Cultura Vitoria-Gasteiz Kultura

X: VG_Kultura

Azaleko argazkia: Endika Portillo

Eskerrak eman nahi dizkiegu Kultura Zerbitzuko teknikariei eta udaleko gainerako Sailei, kultura-eragileei, elkarteei, erakundeei eta 2024-28 Kultura Plan Estrategiko hau egiten lagundu duten pertsona guztiei.

GASTEIZKO
KULTURAREN
PLAN ESTRATEGIKOA
2024-208

Entzun eta egin

AURKIBIDEA

1	AURKEZPENA	7
2	ERREFERENTZIA-ESPARRUA	9
3	DIAGNOSTIKOA	13
	3.1. Diagnostiko kuantitatiboa.....	14
	3.2. Diagnostiko kualitatiboa.....	32
4	HEDAPEN ESTRATEGIKOA	55
	4.1. Misioa eta ikuspegia.....	56
	4.2. Egitura.....	57
	4.3. Erronka estrategikoak.....	58
	4.4. Ekintza-plana.....	59
	4.5. Planaren kudeaketa-eredua.....	91
5	PLANAREN FINANTZAKETA	97



Argazkia: Jon Usual

■ AURKEZPENA

Gasteizko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Saila buru duela, dokumentu honek Gasteizko kulturaren egoerari buruz egindako analisi eta hausnarketa parte-hartzailearen alderdi garrantzitsuenak jasotzen ditu, 2028rako orientabide estrategiko nagusiak ezartze aldera.

Prozesuaren emaitza gisa, **Gasteizko Kultura 2028 Plan Estrategikoa** aurkeztu da. Plana Gasteizko Udalaren 2023-2027 Udal Gobernuaren Programarekin lerrokatuta dago (genero-ikuspegia barne hartuta diseinatua), baita Nazio Batuen garapen jasangarrirako helburuekin, Eusko Jaurlaritzaren Kultura 2028 Plan Estrategikoarekin, Arabako 2023-2028 Kultura Planarekin eta Europa kultura-planteamenduekin ere.

Dokumentu hau ibilbide-orri bat izango da, gizarteak planteatzen dituen erronkek markatutako helburuak lortzeko bidean aurrera egiteko. Izan ere, gizarteak eraldaketa sakonak jasan behar izan ditu pandemia osteko testuinguruan, eta argi eta garbi geratu da kultura funtsezko aldaketa-eragilea dela gizarte aurreratuetan.

Dokumentu honek 2024an egindako hausnarketa-prozesuaren emaitzak jasotzen ditu, honako premisa hauek oinarritzat hartuta:

- Nazio Batuen Batzarrak onartutako eta Eusko Jaurlaritzaren Euskadi 2030 Agendan islatutako garapen jasangarrirako helburuak bere gain hartzen dituen plana da.
- **Bat dator gaur egungo testuinguruarekin**, eta kultura eraldaketaren eragile gisa kokatzen duen gizartearen beharrei erantzutea du helburu.
- Planak sailen arteko, erakundeen arteko eta erakunde publiko eta pribatuen arteko **akordioak lortzeko eta lankidetzan aritzeko** beharra planteatzen du, estrategikoki behar bezala betetzen dela bermatzeko.
- **Elkarrizketatik sortutako plana** da, eta prozesuan nabarmen parte hartu dute herritarrek, Kultura Zerbitzuak, Gasteizko Udaleko sailek, kulturaren sektoreak, Gasteizko



komunikabideek, kulturarekin konprometituta dauden beste eragile batzuek eta udal-ordezkaritza duten talde politikoeak.

- **Asmo handiko plana da, errealista eta egingarria.** Apustu berritzaileak planteatzeko gai izango da, eta udal-kudeaketarako tresna erabilgarri eta arin gisa sortu da.
- Estrategia hori **urteko kudeaketa-planen** bidez garatuko da. Plan horiek errealitatera egokituko dira, aukerak bilatuko dituzte eta eskakizun berriei erantzungo diete, eskura dauden baliabideak kontuan hartuta.

Hauek dira Gasteizko Kulturaren Plan Estrategikoa 2028 arautzen duten **printzipioak**:

- Pertsonetikiko, taldearekiko eta publikoarekiko **konfiantza**, horiei entzunez eta elkarrizketaren, lankidetzaren eta parte-hartzearen bidez.
- **Gardentasuna eta gobernu ona**, zerbitzu publikoari erantzuteko asmoz. Entzun eta egin egiten dugu.
- Kulturarekiko **konpromisoa**, pertsonen bizitza hobetzeko. Gure nortasunarekiko, pluraltasunarekiko eta aniztasunarekiko konpromisoa.
- **Berrikuntza**, hirian eta pertsonen bizitzan eragin positiboa izango duten esperientzia aberasgarriak sortzeko.
- **Kohesioa**. Auzoetako hiria eta kultura auzoetan. Aukera berriak sortuko dira kultura-eskaintza zabaltzeko, betiere tolerantzian, bizikidetzan eta errespetuan oinarrituz.
- **Etengabeko ebaluazioa**. Plan dinamikoa aurkeztu dugu, plan bizia, malgua, aukerak identifikatzeko eta unean uneko aldaketetara egokitzeko gai izango dena.
- **Profesionaltasuna**. Talde egonkorra, trebatua, esperientziaduna eta ilusioduna.

■ ERREFERENTZIA ESPARRUA



Argazkia: Endika Portillo

Erreferentzia-esparrua definitzea ezinbestekoa da kultura-estrategia berriari **ikuspegia eta testuingurua** emateko, eta, horretarako, gaur egun kultura-politika publikoen arloan egiten diren esku-hartzeak bideratzen dituzten paradigmatik aztertu dira. Gasteizko Kulturaren Plan Estrategikoak **tokiko ikuspegi batetik** egindako estrategiak hartzen ditu erreferentzia-esparru gisa, Gasteizko Udal Gobernuaren 2023-2027 Programak eta Gasteizko Kulturaren 2018-2021 Plan Estrategikoak ezartzen duten strategiari lotuta; baina baita **udalaz gaingoko ikuspegi batetik** egindako estrategiak ere, Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren kultura-plan estrategikoak abiapuntutzat hartuta (2028ra bideratuta daude biak). Era berean, eta globalizazioaren gaur egungo testuinguruan, **Europako eta nazioarteko esparruan** ere jarri da arreta.

Jarraian, erreferentzia-esparruaren baitan kontuan hartu diren estrategien indar-ideiak jasotzen dira:

UDAL-ESPARRUA: KULTURA, GASTEIZKO JARDUERAREN ETA BIZITZAREN FUNTSEZKO ERAGILEA

▪ Gasteizko Kulturaren Plan Estrategikoa 2018-2021

Gasteizko herritarren GARAPEN PERTSONALERAKO ETA GIZARTE-ONGIZATERAKO TRESNA gisa kontzeptualizatzen du kultura, hiriko kultura-ehunarekin batera lan egitea ardatz gisa hartuta, horrela, kultura-politika integralagoa, tokikoagoa, jasangarriagoa, egonkorragoa, inklusiboagoa eta demokratikoagoa lortzeko.

▪ Gasteizko Udalaren 2023-2027 Gobernu Programa

GASTEIZKO JARDUERAREN ETA BIZITZAREN FUNTSEZKO ERAGILE gisa aipatzen du kultura, eta honako hauek jasotzen ditu, besteak beste, lan-ildo gisa: **kultura-ekipamenduak hobetzea eta sendotzea, Gasteiz kulturaren hiri gisa nabarmentzea eta kultura-jarduera sustatzea.**

LURRALDE-ESPARRUA: KULTURA ESKUBIDE GISA

- **Arabako Kultura Plana 2023-2028**

Eskubide kulturalaren kontzeptua Arabako politika kulturalen eragile gisa aplikatzean datza, pertsonen eta erakundeen garapena ahalbidetuz: **kulturarako sarbidea izateko eskubidea**, dagoen eskaintza kulturalaz gozatzeko eskubide gisa hartuta, **sorkuntzarako eskubidea**, hau da, kultura sortzeko eskubidea, eta **parte hartzeko eskubidea**, inguruko politika kulturaletan eragin ahal izateko eskubidetzat hartuta.

ESPARRU AUTONOMIKOA: KULTURA GIZARTE-KOHESIORAKO ELEMENTU GISA

- **Kultura 2028 Plan Estrategikoa**

Eusko Jaurlaritzaren Kultura 2028 Plan Estrategikoaren arabera, **herri batek, gizarte batek, kultura behar du bere eraketarako eta kohesiorako**. Kulturak egiten gaitu gizaki; kulturak egiten gaitu herri. Era berean, erakundeen arteko lankidetzaren oinarri bat ezarri nahi du, euskal kultura sustatzeko, Euskadin kohesiorako gizarte-elementu gisa.

EUROPAKO ESPARRUA: KULTURA GIZARTE-ERALDAKETARAKO ERAGILE GISA

- **Kulturarako Europako Agenda Berria**

Europar, **kultura funtsezko eragilea da gizartearen eraldaketa eta kohesiorako**. Horregatik, Europako Batzordearen **Kulturarako Europako Agenda Berria** (COM/2018/267) hartu behar da kontuan. Agenda horren helburua da kulturaren potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzea Batasun **integratzaileagoa eta bidezkoagoa** eraikitzen laguntzeko, betiere berrikuntza, sormena eta hazkunde eta enplegu jasangarriak babestuz.

NAZIOARTEKO ESPARRUA: KULTURA GARAPEN JASANGARRIARI LAGUNTZEKO GILTZARRI GISA

- **Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda**

Kultura ez dago garapen jasangarrirako helburuen artean jasota, baina, hala eta guztiz ere, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Adierazpenak, 2030 Agenda onartzen duenak, argi eta garbi adierazten du kultura oso garrantzitsua dela garapen jasangarriari eta eraldaketari laguntzeko, eta horixe da 2015eko irailean onartutako ibilbide-orri honek lortu nahi duena.

- **Mondiacult 2022 adierazpena**

Politika Kulturei eta Garapen Jasangarriari buruzko UNESCOren Mundu Konferentziaren Adierazpenak, UNESCOk zuzendutako hamar hilabeteko negoziazio multilateralen emaitza denak, lehen aldiz baieztatzen du kultura «munduko ondasun publikoa» dela, eta **politika publikoetan kontuan izan beharreko eskubide kulturalen multzo bat definitzen du.**


■ DIAGNOSTIKOA



Argazkia: Gasteizko Udala

3.1.

DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA




Argazkia: Nuria Gonzalez

Atal honetan, Gasteizko kulturaren egoerari buruzko informazio kuantitatiboaren aukeraketa bat aurkezten da, eta adierazgarrien izan daitezkeen eremuak aztertzen dira. Errealitate kulturalarekiko hurbilketa hori oso input baliagarria izan da Plan Estrategikoaren ekintza-lerroak zehazteko orduan, udalerriko kultura-jardueraren indarguneak, ahuleziak eta joerak ikusarazteko aukera ematen baitu.

Atal honetan erabili diren informazio iturriak hauek izan dira: Eustat, Kulturklik eta Gasteizko Udala.


Hausnarketarako ardatz nagusiak



1. TESTUINGURU SOZIODEMOGRAFIKOA

GASTEIZKO DEMOGRAFIA

Gasteizko biztanleak sexuaren arabera banatuta, 2023.



Iturria: guk geuk egina, Eustaten datuak oinarritzat hartuta.

Biztanleak adin-tarteen eta sexuaren arabera banatuta, 2023.

ADIN-TARTEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA (%)	GIZONAK (%)	EMAKUMEAK (%)
0-14	35.262	18.215	17.047	14,10	7,28	6,82
15-19	12.304	6.364	5.940	4,92	2,54	2,38
20-29	23.357	11.891	11.466	9,34	4,75	4,58
30-39	28.104	13.878	14.226	11,24	5,55	5,69
40-49	40.865	20.442	20.423	16,34	8,17	8,17
50-64	54.157	26.137	28.020	21,65	10,45	11,20
65+	56.051	24.115	31.936	22,41	9,64	12,77
Total	250.100	121.042	129.058	100,00	48,40	51,60

Iturria: guk geuk egina, Eustaten datuak oinarritzat hartuta.

Gasteizen bizi diren biztanleen % 44k 50 urte baino gehiago ditu, eta, beraz, % 19k bakarrik ditu 20 urte baino gutxiago. Arabako hiriburuan, 50 urtetik gorako emakumeak lau pertsonatik bat dira (% 24), adin-tarte bereko gizonen % 20aren oso gainetik.

Hiriburuetakoko biztanleak adin-tarteen eta batez besteko adinaren arabera banatuta, 2022.

KATEGORIA (% BERTIKALAK)	GASTEIZ	BILBO	DONOSTIA	EAE
≤30	29,3	26,8	27,8	28,2
31-64	48,7	48,6	47,2	48,6
≥65	22,0	24,6	25,0	23,2

Iturria: guk geuk egina, Eustaten datuak oinarritzat hartuta - Biztanleen Udal Estatistika.


BATEZ BESTEKO ADINA	GASTEIZ	BILBO	DONOSTIA	EAE
	44,6	46,9	46,6	45,7

Iturria: guk geuk egina, Eustaten datuak oinarritzat hartuta - Piramide interaktiboak.

Euskadiko biztanleriaren zahartzeari dagokionez, Gasteiz da batez besteko adin txikiena duen lurraldeko hiriburua (44,6 urte).

30 urte edo gutxiago dituztenen taldea biztanleria osoaren % 29 da, 65 urtetik gorakoena baino 7 puntu gehiago. Alde hori txikiagoa da Bilbon (2,2) eta Donostian (2,8).

Gasteizko biztanleak auzoen arabera banatuta, 2023.



Iturria: guk geuk egin, Eustaten datuak oinarritzat hartuta.

Zabalgana eta Arriaga-Lakua dira biztanle gehien dituzten auzoak (% 10 baino gehiago bi kasuetan), eta Salburua eta Sansomendi hurrengoak (% 8 inguru).

Ali-Gobeo, Arantzabela eta hiru landa-eremuak (hego-mendebaldea, ipar-mendebaldea, ekialdea) dira biztanle gutxien dituztenak; % 3ra baino ez dira iristen guztien artean.

EUSKARAREN EZAGUTZA

Hiriburuetako biztanleak euskara-mailaren arabera banatuta, 2021.

KATEGORIA (% BERTIKALAK)	GASTEIZ	BILBO	DONOSTIA	EAE
Euskaldunak	29,8	30,6	46,7	43,3
Ia euskaldunak	21,1	19,6	21,3	19,1
Erdaldunak	49,1	49,8	32,0	37,6

Iturria: guk geuk egina, Eustaten datuak oinarritzat hartuta – Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda.

Gasteizko biztanleen % 29,8k ondo dakite euskaraz, eta % 21,1ek maila ertaina dute. Egoiliarren beste erdiek (% 49,1) ez dute hizkuntza ezagutzen. Datu horien arabera, Gasteiz Bilboren antzeko parametroetan dago, baina Donostiatik eta EAeko batezbestekotik urrun. Batezbesteko horren arabera, euskaraz ez dakiten biztanleen kopurua % 37,6ra jaisten da EAEn (Arabako hiriburuan baino 11 puntu gutxiago).


KATEGORIA (% BERTIKALAK)	2011	2016	2021
Euskaldunak	20,1	20,6	20,1
Ia euskaldunak	26,1	19,7	21,1
Erdaldunak	51,4	53,0	49,1

Iturria: guk geuk egina, Eustaten datuak oinarritzat hartuta – Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Errolda.

Hala eta guztiz ere, euskaldunen ehunekoak bilakaera nabarmena izan du 2011. urtetik 2021. urtera: % 22,5etik % 29,8ra igaro da. Dirudenez, ia euskaldunak diren horiek gero eta gehiago murgiltzen ari dira euskaraz, horien pisua murriztu egin baita aldi berean (-5 puntu), baina neurri txikiagoan erdaldunen artean (-2,3 puntu).

2. KULTURAKO UDAL- AURREKONTUA

KULTURAKO AURREKONTU OSOAREN BILAKAERA, 2019-2024



Iturria: guk geuk egin, Gasteizko Udalaren aurrekontuetako datuak oinarritzat hartuta.


Hazkunde-tasa 2019-2024: +% 13,53

Kulturara bideratutako aurrekontuak goranzko bilakaera izan du 2019tik 2024ra bitartean, eta % 13ko igoera izan du (milioi eta erdi euro baino gehiago). Igoera jasangarria izan da, 2021ean izan ezik, orduan beherakada nabarmena izan baitzen pandemiak eraginda.

3. KULTURA-ESKAINNTZA

KULTURA-ESKAINNTZAREN AZTERKETA

Ekitaldiak tipologiaren arabera banatuta, 2023.




Iturria: guk geuk egina, Kulturkliken datuak oinarritzat hartuta.

*Beste batzuk kategoriaren barruan sartzen dira: jaiak, lehiaketak, ikastaroak eta tailerrak, jaialdiak eta zikloak, eta azokak.

Kontzertuen (% 29,5) eta antzerkien (% 20) artean, urtean mila ekitaldi inguru antolatzen dira. Horiek osatzen dute, hain zuzen, Gasteizen egiten diren ekitaldi guztien ia erdia.

Ekitaldiak hizkuntzaren arabera banatuta, 2023.



Iturria: guk geuk egina, Kulturkliken datuak oinarritzat hartuta.

Hiriko hamar ekitalditatik lau gaztelaniaz egiten dira. Bestalde, euskara lau ekitalditatik batean dago presente.



"Estación Paraiso", La Maquiné

4. KONTSUMO ETA PARTE-HARTZE KULTURALA

KULTURA-ESKAINTZAREN EZAGUTZA

	PROGRAMAK ETA ZENTROAK	EZAGUTZA (%)	RANKINGA	EMAKUMEEN ALDEKO DIFERENTZIALAREN %	18-34 URTEKOEN EZAGUTZA (%)
GIZARTE-ETXEETAKO JARDUERAK	Ikastaro kulturalak eta praktika artistikoari buruzkoak	65,0	11-12 ^o	+13,1	64,3
	Animazio-jarduerak liburutegietan	42,2	17 ^o	+11,0	50,5
ANTZOKI SAREA	Principal Antzokia	86,4	2 ^o	+3,9	81,8
	Antzerkiak gizarte-etxeetan	67,7	10 ^o	+12,9	64,9
ANDRE MARIA ZURIAREN JAIK	Musika-ikuskizunak, kontzertuak	83,8	3 ^o	+4,6	87,7
	Haurrentzako eta familientzako ikuskizunak	55,9	13 ^o	+7,0	60,4
	Ikuskizun piroteknikoak eta zezensuzkoa	82,4	4 ^o	+6,8	87,9
EGUBERRIETAKO PROGRAMA	Haurrentzako ikuskizunak Mendizorrotzan	42,6	16 ^o	+1,5	40,5
	Olentzero eta Mari Domingi	68,4	9 ^o	+8,1	76,4
	Errege Magoetako programa	81,0	6 ^o	+6,7	88,0
	Floridako jaiotza monumentala	91,4	1 ^o	+7,6	92,3
JAI TRADIZIONALAK	San Anton eguneko programa	47,7	15 ^o	+4,5	44,7
	Inauterietako programa	81,9	5 ^o	+0,3	90,6
	Olarizuko programa	69,7	8 ^o	-2,1	82,3
KALEKO KULTURAREN PROGRAMA	Kaldearte	52,9	14 ^o	+9,3	46,0
	Kultura Plazara	23,2	20 ^o	+3,8	24,5
	Montehermoso Kulturunea	70,6	7 ^o	+5,7	60,9
	Udal Musika Banda	65,0	11-12 ^o	-3,6	57,4
	Folklore Akademia	26,2	19 ^o	+1,2	22,5
	Pilar Aróstegui Udal Artxiboa	40,3	18 ^o	-5,4	38,5

Iturria: Gasteizko Udalaren kultura-programazioari buruzko iritzi-inkesta. Biztanleen % 80tik baino ezagutza handiagoa duten pertsonak **urdinez** adierazten dira.

Floridako jaiotza monumentalak da gizartean **ospe gehien duen kultura-ekitaldia** (herritarren % 91). Horren ondoren, **Principal Antzokiko programa** eta jai-egunetako ekitaldiak ditugu (jaietako kontzertuak, zezensuzkoa, Errege Magoetako programa, inauteriak...). Sexuen arabera, **emakumeek oro har gehiago ezagutzen dute eskaintza**, bereziki gizarte-etxeetako eta liburutegietako ikastaroak, tailerrak eta jarduerak.

Bestalde, **gazteek (18-34 urte) jaietako ekitaldiak** (jai «tradizionaletakoak» eta «Andre Maria Zuriaren» jaietakoak) **ezagutzen dituzte batez ere**; aitzitik, batezbesteko orokorrak baino gutxiago ezagutzen dituzte Folklore Akademiari, Udal Musika Bandari eta Montehermoso Kulturuneari dagozkion jarduerak.

Udalaren kultura-programa ezagutzeko erabiltzen den kanala, 2024

	% OSOA	EMAKUMEEN ALDEKO DIFERENTZIALAREN %	% 18-34
Udalaren webgunea	21,7	+6,7	18,3
Beste webgune eta komunikabide batzuk, edo kultur etxeen webguneak	21,7	-2,5	10,7
Sare sozialak (VG_kultura, Go Gasteiz, WhatsApp...)	19,2	-3,6	36,0
Lagunak, beste pertsona batzuk edo kolektiboak	18,8	+5,3	19,6
Liburuxkak	18,7	-5,8	15,4

Iturria: Gasteizko Udalaren kultura-programazioari buruzko iritzi-inkesta.

Hiriko kultura-eskaintza hainbat kanalen bidez helarazten zaigu, eta horien garrantzia parekatua da, oro har.

Dirudienez, emakumeek udal-webgunearen eta lagunaren bitartez jasotzen dute batez ere informazioa, eta gizonek, berriz, sare sozialetara eta paperezko liburuxketara jotzen dute. Gazteek nahiago dituzte sare sozialak.

Herritarren parte-hartzea - bertaratzea kultura-ikuskizunetan, 2024.

	PROGRAMAK ETA ZENTROAK	BERTARATZEA (%)	RANKINGA	EMAKUMEEN ALDEKO DIFERENTZIALAREN %	18-34 URTEKOEN BERTARATZEA (%)
GIZARTE-ETXEETAKO JARDUERAK	Ikastaro kulturalak eta praktika artistikoari buruzkoak	16,5	14 ^o	+3,3	13,2
	Animazio-jarduerak liburutegietan	10,2	16 ^o	+7,2	8,7
ANTZOKI SAREA	Principal Antzokia	30,2	7 ^o	+2,5	29,5
	Antzerkiak gizarte-etxeetan	20,4	10 ^o	+5,2	26,0
ANDRE MARIA ZURIAREN JAIK	Musika-ikuskizunak, kontzertuak	52,7	2 ^o	-	62,3
	Haurrentzako eta familientzako ikuskizunak	19,9	11 ^o	+3,0	20,8
	Ikuskizun piroteknikoak eta zezensuzkoa	47,6	4 ^o	+0,7	54,7
EGUBERRIETAKO PROGRAMA	Haurrentzako ikuskizunak Mendizorrotzan	10,9	15 ^o	+2,2	10,3
	Olentzero eta Mari Domingi	34,0	6 ^o	+5,4	33,2
	Errege Magoetako programa	44,7	5 ^o	+10,4	44,2
	Floridako jaiotza monumentala	76,1	1 ^o	+10,0	71,7
JAI TRADIZIONALAK	San Anton eguneko programa	7,3	17 ^o	+0,5	6,4
	Inauterietako programa	48,2	3 ^o	+7,4	43,0
	Olarizuko programa	25,0	8 ^o	-4,1	34,5
KALEKO PROGRAMA	Kaldearte	22,7	9 ^o	+6,3	14,3
	Kultura Plazara	5,5	18 ^o	+3,5	4,7
	Montehermoso Kulturunea	18,0	13 ^o	-2,2	21,3
	Udal Musika Banda	19,3	12 ^o	-4,0	13,8
	Folklore Akademia	3,3	20 ^o	+3,4	4,4
	Pilar Aróstegui Udal Artxiboa	4,5	19 ^o	-0,2	4,6

Iturria: guk geuk egina, Gasteizko Udalaren 2024ko kultura-programazioari buruzko iritzi-inkesta oinarritzat hartuta. Biztanleen herenek baino gehiagok parte hartzen duten programak **urdinez** adierazten dira.

Herritarrak Gabonetako ekitaldietara joaten dira gehien (jaiotza monumentala, Olentzero eta Mari Domingi, Errege Magoak...), baita jaietako ekitaldietara ere (Andre Maria Zuriaren jaietako kontzertu eta ikuskizun piroteknikoak, Inauteriak...).

Sexuen arabera, **emakumeek gizonek baino gehiago parte hartzen dute** programa gehienetan (20tik 15ek), eta gazteak Andre Maria Zuriaren jaietako programetan nabarmentzen dira.

Herritarrek gehien ezagutzen eta bertaratzen diren programak, 2024.

PROGRAMAK ETA ZENTROAK	EZAGUTZAREN RANKINGA	BERTARATZEEN RANKINGA
Floridako jaiotza monumentala	1 (% 91,4)	1 (% 76,1)
Principal Antzokia	2 (% 86,4)	7 (% 30,2)
Musika-ikuskizunak eta kontzertuak Andre Maria Zuriaren jaietan	3 (% 83,8)	2 (% 52,7)
Ikuskizun piroteknikoak eta zezensuzkoa Andre Maria Zuriaren jaietan	4 (% 82,4)	4 (% 47,6)
Inauterietako programa	5 (% 81,9)	3 (% 48,2)
Errege Magoetako programa	6 (% 81,0)	5 (% 44,7)
Montehermoso Kulturunea	7 (% 70,6)	13 (% 18,0)
Olarizuko programa	8 (% 69,7)	8 (% 25,0)
Olentzero eta Mari Domingi programa	9 (% 68,4)	6 (% 34,0)
Antzerkiak gizarte-etxeetan	10 (% 67,7)	10 (% 20,4)
Ikastaro kulturalak eta praktika artistikoari buruzkoak	11-12 (% 65,0)	14 (% 16,5)
Udal Musika Banda	11-12 (% 65,0)	12 (% 19,3)
Haurrentzako eta familientzako ikuskizunak Andre Maria Zuriaren jaietan	13 (% 55,9)	11 (% 19,9)
Kaldearte	14 (% 52,9)	9 (% 22,7)
San Anton eguneko programa	15 (% 47,7)	17 (% 7,3)
Haurrentzako ikuskizunak Mendizorrotzan	16 (% 42,6)	15 (% 10,9)
Animazio-jarduerak liburutegietan	17 (% 42,2)	16 (% 10,2)
Pilar Aróstegui Udal Artxiboa	18 (% 40,3)	19 (% 4,5)
Folklore Akademia	19 (% 26,2)	20 (% 3,3)
Kultura Plazara	20 (% 23,2)	18 (% 5,5)

Iturria: guk geuk egina, Gasteizko Udalaren 2024ko kultura-programazioari buruzko iritzi-inkesta oinarritzat hartuta.

Oro har, bertaratzea handiagoa izaten da programaren ezagutza-maila handitu ahala; zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta jende gehiago bertaratzen da. Bi kasutan, azpiegituraren ezagutza bertaratzea bera baino handiagoa da (Principal Antzokia eta Montehermoso Kulturunearen kasuan).

5. KULTURA- ETA SORMEN-INDUSTRIAK (KSI)

KSI ENPRESAK HIRIAN

Hiriko KSI enpresen kopurua, 2023.

2023ko urtarrilaren 1ean, kultura- eta sormen-industrien sektoreetako 1.701 enpresa zeuden Gasteizen, hiriko enpresa guztien % 11,1.

Iturria: Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktoria.

KSI enpresen bilakaera Gasteizen, 2015-2023.

URTEA	HIRIKO KSI ENPRESAK GUZTIRA	HIRIKO KSI ENPRESEN URTE ARTEKO BILAKAERA (%)	HIRIKO ENPRESAK GUZTIRA	KSI ENPRESEN %, HIRIKO ENPRESA GUZTIEN ALDEAN
2015	1.608	-	16.044	% 10,0
2016	1.609	+0,1	15.896	% 10,1
2017	1.614	+0,3	15.846	% 10,2
2018	1.613	-0,1	15.551	% 10,4
2019	1.670	+3,5	15.771	% 10,6
2020	1.651	-1,1	15.593	% 10,6
2021	1.649	-0,1	15.465	% 10,7
2022	1.673	+1,5	15.536	% 10,8
2023	1.701	+1,7	15.374	% 11,1
Bilakaera 2015-2023	+ 93	+5,8	-670 (-% 4,2)	% 1,0

Iturria: guk geuk egin, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioko datuak oinarritzat hartuta.

2015. eta 2023. urteen artean, KSlen enpresa kopuruak gora egin du zertxobait (+% 5,8). Sektore horrek hiriko enpresa guztien gainean duen pisua ere hazi egin da zertxobait, % 10etik (2015ean) % 11,1era (2023an). Beraz, KSI enpresak sortzeko erritmoa hiriko gainerako sektore ekonomikoena baino pixka bat handiagoa da.

Gasteizko enpresen bilakaera KSI sektoreen arabera, 2015-2023.

JARDUERA-SEKTOREAK	ENPRESA KOPURUA 2015EAN	ENPRESA KOPURUA 2023AN	BILAKAERA 2015-2023
A. Kultura-jarduerak	438	494	+% 12,8
A.1 Arte eszenikoak	72	105	+% 45,8
A.2 Ikusmen-arteak	136	153	+% 12,5
A.3 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	51	69	+% 35,3
A.4 Liburuak eta prentsa	115	89	-% 22,6
A.5 Musika	55	62	+% 12,7
A.6 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	9	16	+% 77,8
B. Kultura-jarduera osagarriak	250	278	+% 11,2
B.1 Arte eszenikoak	43	60	+% 39,5
B.2 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	61	97	+% 59,0
B.3 Liburuak eta prentsa	79	72	-% 8,9
B.4 Musika	9	6	-% 33,3
B.5 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	58	43	-% 25,9
C. Sormen-jarduerak	916	926	% 1,1
C.1 Arkitektura	381	325	-% 14,7
C.2 Diseinua	50	75	+% 50,0
C.3 Hizkuntzaren industriak	342	388	+% 13,5
C.4. Publizitatea	143	137	-% 4,2
C.5 Bideojokoak	-	1	-
D. Sormen-jarduera osagarriak	4	3	-% 25,0
D.1 Web atariak	4	3	-% 25,0
GUZTIRA	1.608	1.701	+% 5,8

Iturria: guk geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioko datuak oinarritzat hartuta.

KSlen sektoreek 2015etik 2023ra bitartean izan duten bilakaerari buruzko ikuspegi zehatz bat eginez gero, ikus daiteke enpresa kopurua nabarmen hazi dela kultura-jardueren (+% 12,8) eta kultura-jarduera osagarrien (+% 11,2) artean. Bi kasuetan, arte eszenikoak eta ikus-entzunezkoen eta multimediararen azpisektoreak dira joera onena izan dutenak; bestalde, behera egin dute liburuen eta prentsaren arloko enpresek.

Sormen-jardueren artean, enpresa kopuruak ez du izan gorabehera aipagarririk.

ENPLEGUA KSI ENPRESETAN

Enplegu kopurua hiriko KSI enpresetan, 2023.

2023ko urtarrilaren 1ean 4.905 pertsonak lan egiten zuten Gasteizko kultura- eta sormen-industrietan. Kopuru hori hiriko enplegu guztiaren % 5,5 da.

Iturria: Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioa.

Gasteizko enpleguaren bilakaera KSI sektoreen arabera, 2015-2023.

JARDUERA-SEKTOREAK	ENPLEGU KOPURUA 2015EAN	ENPLEGU KOPURUA 2023AN	BILAKAERA 2015-2023
A. Kultura-jardueren guztizko partziala	1.186	1.280	+% 7,9
A.1 Arte eszenikoak	158	229	+% 44,9
A.2 Ikusmen-arteak	187	179	-% 4,3
A.3 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	233	238	+% 2,2
A.4 Liburuak eta prentsa	286	305	+% 6,6
A.5 Musika	223	203	-% 9,0
A.6 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	99	126	+% 27,3
B. Kultura-jarduera osagarrien guztizko partziala	1.441	1.746	+% 21,2
B.1 Arte eszenikoak	328	331	+% 0,9
B.2 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	267	586	+% 119,5
B.3 Liburuak eta prentsa	243	209	-% 14,0
B.4 Musika	11	6	-% 45,5
B.5 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	592	614	+% 3,7
C. Sormen-jardueren guztizko partziala	1.725	1.879	+% 8,9
C.1 Arkitektura	505	445	-% 11,9
C.2 Diseinua	61	91	+% 49,2
C.3 Hizkuntzaren industriak	824	1.057	+% 28,3

JARDUERA-SEKTOREAK	ENPLEGU KOPURUA 2015EAN	ENPLEGU KOPURUA 2023AN	BILAKAERA 2015-2023
C.4. Publizitatea	335	286	-% 14,6
C.5 Bideojokoak	-	-	-
D. Sormen-jarduera osagarrien guztizko partziala	12	-	-
D.1 Web atariak	12	-	-
GUZTIRA	4.364	4.905	+% 12,4

Iturria: guk geuk egina, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioko datuak oinarritzat hartuta.
Sektore batzuek ez dute informaziorik, pribatutasun-arrazioak direla eta.

Enpleguari dagokionez hazkunderik handiena izan duten sektoreak kultura-jarduera osagarriak izan dira (+% 21,2, 2015. eta 2023. urteen artean), KSI guztien batezbestekoaren oso gaitetik (% 12,4). Igoera hori ikus-entzunezkoei eta multimediari dagokie batez ere, horietan bikoiztu egin baita enplegu kopurua (+% 119,5).

Gasteizko enplegua sexuaren eta KSI sektoreen arabera banatuta, 2023.

JARDUERA-SEKTOREAK	KSI SEKTOREETAKO ENPLEGU KOPURUA EMAKUMEEN ARTEAN (2023)	KSI SEKTOREETAKO ENPLEGU KOPURUA GIZONEN ARTEAN (2023)	E-G PROPORTZIOA GASTEIZKO KSI SEKTOREETAN
A. Kultura-jardueren guztizko partziala	635	645	% 49,6 - % 50,4
A.1 Arte eszenikoak	110	119	% 48,0 - % 52,0
A.2 Ikusmen-arteak	65	114	% 36,3 - % 63,7
A.3 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	99	139	% 41,6 - % 58,4
A.4 Liburuak eta prentsa	156	149	% 51,1 - % 48,9
A.5 Musika	110	93	% 54,2 - % 45,8
A.6 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	95	31	% 75,4 - % 24,6
B. Kultura-jarduera osagarrien guztizko partziala	745	1.001	% 42,7 - % 57,3
B.1 Arte eszenikoak	187	144	% 56,5 - % 43,5
B.2 Ikus-entzunezkoak eta multimedia	184	402	% 31,4 - % 68,6

JARDUERA-SEKTOREAK	KSI SEKTOREETAKO ENPLEGU KOPURUA EMAKUMEEN ARTEAN (2023)	KSI SEKTOREETAKO ENPLEGU KOPURUA GIZONEN ARTEAN (2023)	E-G PROPORTZIOA GASTEIZKO KSI SEKTOREETAN
B.3 Liburuak eta prentsa	92	117	% 44,0 - % 56,0
B.4 Musika	1	5	% 16,7 - % 83,3
B.5 Ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak	281	333	% 45,8 - % 54,2
C. Sormen-jardueren guztizko partziala	1.025	854	% 54,6 - % 45,5
C.1 Arkitektura	172	273	% 38,7 - % 61,3
C.2 Diseinua	50	41	% 55,0 - % 45,0
C.3 Hizkuntzaren industriak	669	388	% 63,3 - % 36,7
C.4. Publizitatea	134	152	% 46,9 - % 53,1
C.5 Bideojokoak	-	-	-
D. Sormen-jarduera osagarrien guztizko partziala	-	-	-
D.1 Web atariak	-	-	-
GUZTIRA	2.405	2.500	% 49,0 - % 51,0

Iturria: guk geuk egin, Eustaten Jarduera Ekonomikoen Direktorioko datuak oinarritzat hartuta.
Sektore batzuek ez dute informaziorik, pribatutasun-arrazoiak direla eta.

Gasteizko KSI sektoreetako enpleguak sexuen arabera banaketa orekatua badu ere, azpisektoreak xehetasunez aztertuz gero, feminizazio-kasuak (industria hauetan: hizkuntzak, ondarea, museoak, artxiboak eta liburutegiak...) eta maskulinizazio-kasuak (ikus-entzunezkoak eta multimedia, arkitektura, ikusmen-arteak...) hautematen dira, eta horiek % 60-40ko muga gainditzen dute edozein norabidetan.

3.2.

DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA



Argazkia: Gasteizko Udala

Gasteizko Kulturaren Plan Estrategikoa hiru zutabetan ardatzen da: **UDALA, HERRITARRAK** eta **ERAGILE SEKTORIALAK**. Horregatik, **diagnosi kualitatiboa** egitean **gizarteari, Udalari eta sektoreari dagozkion dimentsioak** hartu dira kontuan; hiru ikuspegi horiek jaso ahal izateko, Udalak **parte-hartze eta entzute aktiboko prozesuak** jarri ditu abian. Prozesu horietarako hainbat kanal erabili dira (topaketa parte-hartzaileak, elkarrizketak, inkestak), eta oso baliagarriak izan dira **sektoreak** hirian duen **egoerari buruzko eskaera eta proposamen zehatzak biltzeko eta identifikatzeko**, eta **plangintza estrategiko honek zein erronka nagusiri erantzun behar dien zehazteko**.

DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA: 3 DIMENTSION ETA 4 ITURRI

UDALAREN IKUSPEGIA: KULTURA-ZERBITZUA

Kultura Zerbitzuko langileei
elkarrizketak

UDALAREN IKUSPEGIA: UDAL-SAILAK

Jardunaldi parte-hartzailea
udal-zerbitzuen presentziarekin



IKUSPEGI SEKTORIALA: KULTURA-ERAGILEAK

Jardunaldi parte-hartzailea
lan-mahai sektorialekin

IKUSPEGI SOZIALA: HERRITARRAK

Kulturari buruzko azterketa
demoskopikorako galdeketa

UDALAREN IKUSPEGIA: Atalekin eta sailekin egindako entzute aktiboko prozesuaren emaitza



Argazkia: Gasteizko Udala



Beharrak eta ikuspegiak Udaletik bertatik ezagutzea diagnostikoaren gako nagusietako bat izan da. Horretarako, Kultura Zerbitzuarekin (bere atalen bitartez) eta hiriko kultura-ekintzari atxikitako udal-sailekin lan egin da, hurbiletik eta sakon.

KULTURA ZERBITZUARI ETA SAILEI ENTZUTEN

Gasteizko Udaleko Kultura Zerbitzua zazpi atalek osatzen dute: Kultur Ekintza, Antzoki Sarea, Pilar Aróstegui Udal Artxiboa, Udal Musika Banda, Montehermoso Kulturunea, Folklore Akademia eta Zonetako Kultur Jarduerak. **Programatutako kultura-ekintzaren motorra dira**, eta, hasiera-hasieratik, horiek Kulturaren Plan Estrategikoa egiteko prozesuan txertatzea izan da lehentasuna. Egunerokotasunetik hurbilen dagoen udal-ikuspegia jasotzeko, **elkarrizketa sakonak egin zaizkie** ataletako arduradunei. Elkarrizketa horietan zenbait gai garrantzitsu jarri dira mahai gainean, eta honako hauek nabarmendu dira, besteak beste: ataletako lanaren bilakaera, horiek dituzten baliabideak eta azpiegiturak, lortu nahi dituzten helburuak, edo hiriko kultura-ehunarekin harremanetan jartzeko moduak.

Atalez gain, **Udalaren sailetan kultura-arloan dauden errealitateak eta eskaerak** bildu nahi izan dira diagnostikoan. Horretarako, Kultura Zerbitzuarekin lotura gehien duten zerbitzuburu eta arduradunei jardunaldi parte-hartzaile baterako deia egin zitzaien. **Gasteizko Udaleko 11 sailetako 28 arduradunek** parte hartu zuten jardunaldian:

- Alkatearen, Erakunde Harremanen eta Berdintasunaren Saila
- Kirolaren, Osasunaren eta Garapenerako Lankidetzaren Saila
- Segurtasun Saila
- Kultura eta Hezkuntza Saila
- Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Saila

- Administrazioa Modernizatzeko Saila
- Espazio Publikoaren eta Auzoen Saila
- Hiri Eredu, Hirigintza, Etxebizitza, Garbiketa eta Ingurumenaren Saila
- Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saila
- «Luis Aramburu» Udal Musika Eskola
- «José Uruñuela» Udal Dantza Kontserbatorioa


Jardunaldi horri esker, udal-zerbitzuek euren **beharrak, diagnostikoak, esperientziak eta ezagutza** partekatu ahal izan zituzten. Informazio hori oso baliagarria izango da etorkizuneko erronkak zehazteko, eta Kulturaren Plan Estrategiko berriaren eragile izango diren **proiektu eraldatzaileak zehazteko**.

Jarraian, Gasteizko udal-kulturarekin lotutako udal-eragileei egindako entzute aktiboko prozesuak utzi dizkigun giltzarri nagusiak azalduko ditugu:



PROGRAMAZIOA

Programazioa osoa eta anitza da, baina berrikuntzaren alde apustu egin behar da.




PUBLIKOA

Erantzun eta babes ona, baina publiko gaztearen erronka xede jarrita



LANKIDETZA SEKTOREEKIN

Kultura Elkargunearen funtzionamendua eta parte-hartzea sendotzeko formula berriak.



ATALEN ARTEKO LANKIDETZA

Atalen arteko harremana eta koordinazioa; oso ondo baloratuta daude.




FINANTZAKETA

Aurrera egiteko aurrekontu-zuzkidura indartu behar da.




LANGILEAK

Profesionaltasuna eta konpromisoa, baina langilerik eta belaunaldi-erreleborik eza.




AZPIEGITURAK

Espazio modernoak eta berrituak, baina erabilera anitzeko espazio handia falta da.




KOMUNIKAZIOA

Komunikazioan espezializatutako langileak aurkitzeko eta zabalkundea hobetzeko beharra.



EREMUEN ARTEKO KOORDINAZIOA

Harreman erraza langileen artean, baina koordinazio-prozesu eta -egitura sendorik eta jarraitutasunik gabe.



KOHERENTZIA POLITIKETAN

Ikuspegian eta helburuetan bat datoz hasieran, baina desadostasunak sortzen dira ikuspegiak sakontzen hasi ahala.



SAILEN ARTEKO ELKARLANA

Sailen artean partekatutako proiektuak daude, baina proiektu horiek zabaldu behar dira eta ikuspegi berritzaileagoa eta kolaboratiboagoa behar da.

AMIA - KULTURA ZERBITZUAREN IKUSPEGIA

Indarguneak eta aukerak	Ahuleziak eta mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> — Programazioa herritarren eskarira egokitzea. — Eskaintzaren kalitatea eta dibertsitatea: publiko guztientzat, abangoardiako ukituekin... — Programazio kultural orokorraren eta zehatzagoaren arteko oreka. — Agenda osoa hainbat azpiegituretan. — Gero eta lan handiagoa kultura-berrikuntzan. — Berrikuntza teknologikoa eta euskarri elektronikoen garapena udal-dokumentaziorako. — Jendearen laguntza eta babes handia. — Gizarte-etxeak, auzoetako kulturaren leiho gisa. — Gizarte-etxeen sareak, oro har, zentro modernizatuak eta eraberrituak ditu. — Auzoen beharrak eta interesak diagnostikatzeko prozesuak, programazioa doitzeko. — Sinergiak hiriko eta hiritik kanpoko kultura-ehunarekin. Gertutasuna eta harreman ona. — Kultura Zerbitzuko atalen arteko koordinazioa eta komunikazio positiboa. — Ataletako langileen profesionaltasuna, konpromisoa eta inplikazioa. — Izapideen, kontratazioen eta abarren kudeaketa profesionala. — Hedapen garrantzitsua udal-webgunearen bidez. — Sare sozialen erabilera gero eta handiagoa. Estrategien garapena atal batzuen aldetik. — Gasteizko kulturaren irudi ona eta kanpokoen balorazio ona. 	<ul style="list-style-type: none"> — Errepikatze joera programazioan. — Beste eragile eta profesional batzuekin lankidetzaren areagotzeko beharra, programazioaren kalitatea hobetzeko. — Programazioaren entzumen- eta ikusmen-irisgarritasun eskasa zentro batzuetan. — Espazio batzuen irisgarritasun fisiko eskasa. — Gazteak erakartzeko lan eskasa. — Elkarguneaz gain, beste eragile batzuekin harremana areagotzeko beharra. — Sorkuntzari laguntzeko estrategia sendorik eza artistentzat. — Jarduera hobetzeko (programazio-proiektuak, sektoreko eragileak...) finantzaketa nahikorik eza. — Belaunaldien arteko erreleboari ekiteko arazoak, batez ere profil jakin batzuetan. — Kultura-azpiegiturak gainezka daude eta programazio berriak egitea oztopatzen dute. — Ez dago ekitaldi handietarako auditoriorik. — Ez dago sorkuntza artistikorako zentrorik. — Azpiegitura batzuk modernizatu edo berritu gabe daude. — Entsegu-gelak hobetu daitezke. — Komunikazioan espezializatutako teknikariak falta dira Kultura Zerbitzuan. — Kulturarako web-espazioa hobea izan daiteke. — Kultura-azpiegitura batzuen ezagutzarik eza. — Hiriko kultur agendarik eza.



AMIA - UDAL-SAILEN IKUSPEGIA

Indarguneak eta aukerak

- Teknikarien arteko harremana berehalakoa da, egunerokoa eta **konprometitua**.
- **Entzute aktiboa**, beharrak detektatzeko.
- Elkarrekin lan egiteko prestutasuna.
- Arloen artean **partekatutako ikuspegi orokorra**.
- Ikuspuntu sozialekiko sentsibilitatea.
- **Herritarrentzako orientazioa**, zerbitzuen arteko desberdintasunak alde batera utzita.
- **Sail guztien arreta** kulturaren **lanbide-ehunari**, horien proposamenei erantzuteko.
- **Baterako proiektu estrategikoak sortzea** (barruti ekintzailea...).
- Hainbat eragileren eta sailen artean **antolatu eta adostutako ekitaldiak**.
- Partekatutako ekitaldietan **etengabeko hobekuntzaren** aldeko apustua.

Ahuleziak eta mehatxuak

- **Kulturaren eta zenbait zerbitzuren arteko koordinazio puntuala**, ez horren jarraitua (une eta/edo ekitaldi jakin batzuetan fokalizatuegia).
- Araudi jakin batzuk **teknikoki ez ezagutzea**.
- **Epe luzerako kultura-ikuspegi** handiagoa izateko beharra, lehentasun konplexuenei aurre egiteko.
- Lan eskasa **kultura-politiken koherentziaren** arloan.
- Kultura-politikak ez daude oso bideratuta **kanpo-proiektziora**.
- Zenbait ikuspegi ez dira behar adina aplikatzen kultura-politketan (**osasuna, berdintasuna, aniztasuna...**).
- **Kultura-ikuspegia** gehiegi zentratuta dago **ikuskitzean**, eta ez horrenbeste sorkuntzan eta parte-hartze kulturalean.
- Hasiera-hasieratik sailek **elkarlanean** diseinatutako **programa bateratuen eskasia**.
- **Kultura gutxi irekitzen zaie** beste eragileei, beren proiektu estrategikoak egiteko.
- Lehendik dauden proiektu partekatu batzuen aldeko apusturik eza.

IKUSPEGI SEKTORIALA: Sektoreekin egindako entzute aktiboko prozesuaren emaitza



"Itsas Behera", Pez Limbo. Argazkia: Asier Bastida



Hiriko kultura-eragileak partaidetza-prozesuan inplikatu direnez, diagnostiko zehatza egin ahal izan dugu kultura-plangintzaren funtsezko ardatzei buruz: balio-katea, finantzaketa, azpiegiturak, berdintasuna, euskara, komunikazioa eta publikoa, besteak beste.

SEKTOREEI ENTZUTEN

Gasteizko kultura-eragileen beharrak eta ikuspegiak ezagutzea funtsezkoa da **sektoreak hirian bizi duen egoeraren erradiografia egiteko**. Helburu horrekin, Udalak jardunaldi sektorial baterako deialdia egin zuen. Jardunaldian, kulturaren hainbat arlotako 75 pertsonak parte hartu zuten, 8 mahaitan banatuta:

- Liburua eta literatura.
- Musika.
- Arte eszenikoak.
- Arte plastikoak.
- Ikus-entzunezkoak eta multimedia.
- Elkarte soziokulturalak eta kulturartekoak.
- Kultura-bitartekaritza.
- Komunikabideak.


Eragileen inplikazioarekin eta parte-hartzearekin lortutako ondorioek **diagnostikoa** egiten lagundu dute, baita **erronkak** identifikatzen eta planteatutako erronka nagusiei erantzungo dieten **esku-hartzeak** diseinatzen ere.

Jarraian, lan-mahaien ondorioak laburbiltzen dira:



ARTE ESZENIKOAK

Egonaldi artistikoetarako espazioak eta programak prestatu behar dira, eta berrikuntza eta arrisku gehiago behar dira programazioan.



ARTE PLASTIKOAK

Hiria eta tokiko kultura urrun daude, eta horrek talentuaren ihesa dakar.



MUSIKA

Tamaina ertain-handiko erabilera anitzeko espazio baten behar historikoari erantzun behar zaio. Horrek hiriko markako ekitaldi handiak bultzatuko lituzke.




LIBURUA ETA LITERATURA

Hedapena hobetzea, eragileen arteko koordinazioan oinarrituz eta Liburutegi Sarearen komunikazioa sustatuz.



IKUS-ENTZUNEZKOAK ETA MULTIMEDIA

Laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzeko eredua eguneratzea eta horien izapidetze-prozesua bizkortzea.



ELKARTE SOZIOKULTURALAK

Kolektibo guztiek kultura eskura dutela bermatzea eta eztabaidarako gune berritzaileak sortzea, erabakiak elkarrekin hartzeko.



KULTURA-BITARTEKARITZA

Kontzientzia kulturala berreskuratzeko lan egin behar da (aisialdiarekin eta merkataritzarekin lotu ohi da), eta publikoa behar bezala kudeatu behar da, fidelizazioa eta dibertsifikazioa lortzeko, eta ikus-entzule berriak erakartzeko.



KOMUNIKABIDEAK

Kultura Zerbitzuan komunikazioan espezializatutako profilak txertatzea eta herritarrengana iristeko komunikazio-baliabideak hobetzea (web-sareak).

AMIA – SEKTOREEN IKUSPEGIA

PRESTAKUNTZA/IKERKETA	
Indarguneak eta aukerak	Ahuleziak eta mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> – Arte eszenikoetan prestakuntza-eskaintza zabala dago. – Talentua duten artista berriak, hiriko arte plastikoetako prestakuntzari esker. – Prestakuntzari dagokionez, eskaintzaren eta eskariaren arteko oreka ona da musikaren sektorean. – Musika-heziketako zentroak beteta daude. – Herritarrentzako prestakuntza eta parte-hartze kulturalaren eskaintza askotarikoa da liburuaren eta literaturaren sektorean: sormenezko idazketa-tailerrak, komiki-tailerrak, irakurketa-klubak... 	<ul style="list-style-type: none"> – Ez zaio behar adinako jarraitutasunik ematen arte eszenikoetako prestakuntzari: talentuak kanpoan amaitzen du bere prestakuntza. – Erakundeen aldetik ez dago anbizioerik arte eszenikoetan prestatzeko aukerak areagotzeko. – Prestakuntza eskaini arren, sektorea ez da erabat integratzen arte eszenikoen mundu profesionalan. – Prestakuntza-eskaintza txikia da musika-eragileentzat eta ekoizpen-kudeatzaileentzat. – Hirian ez dago prestakuntza formalaren eskaintza nahikorik ikus-entzunezkoen arloan.

SORKUNTZA	
Indarguneak eta aukerak	Ahuleziak eta mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> – Hiriak komunitate sortzailea du, arte eszenikoen sektorean prestakuntza eta talentua dituena. – Sormen-fabrika finkatuak daude. – Arte eszenikoen esparruko artistak elkarrekin harremanetan jartzeko espazioak daude. – Musika-konposizioan eta -zuzendaritzan talentu handia duten profesionalak daude, eta horiek mentore izan daitezke. – Ikus-entzunezkoen sektorean kalitate eta dedikazio handiko ekimen eta proiektu berriak garatzen dira. – Sortzen ari diren artistek talentua eta sortzeko gaitasuna dute. 	<ul style="list-style-type: none"> – Arte eszenikoetan ez da sorkuntza-espazio nahikorik eskaintzen. – Euskaraz oso gutxi ekoizten da. – Arte plastikoaren sektorean ihes egiten du talentuak, sorkuntzarako laguntzarik jasotzen ez duelako. – Arte plastikoetan komunitate bat sortzeko sorkuntza-espazio gehiago behar dira. – Politika publikoek gutxi laguntzen dute musikaren sorkuntzan. – Ez dira behar adina baliabide bideratzen sortzen ari den talentuaren sorkuntzak finantzatzeko.

EKOIZPENA/EDIZIOA	
Indarguneak eta aukerak	Ahuleziak eta mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> – Hiriak ekoizpen profesionalerako udal-talde bat du, arte eszenikoetan inplikaturatuta dagoena. – Liburuaren esparruan hazi egin da autoedizioa, teknologia berriei eta plataformak digitalei esker. – Hiriko argitaletxeak bere horretan mantendu dira, eta berriak sortzen saiatzen ari gara. – Erakunde publikoek eta pribatuek ikus-entzunezko sektoreko produkzioari laguntza publikoa ematen diote. – Zerga-pizgarriak jarri dira martxan ikus-entzunezko ekoizpenetarako. – Elkarleen sarea sendoa da, oro har, kultura-sektorean. 	<ul style="list-style-type: none"> – Produktuak sortzera bideratzen dira ahaleginak, baina ez horrenbeste prozesuak hobetzera. – Liburuaren sektoreko elkarleen sarea txikia da, baina jarduerari eusten dio nolabait. – Liburuaren sektorean, argitaletxeek beste hiri batzuen aldeko apustua egiten dute. – Kultura anitzeko jardueren ekoizpen eskasa. – Udalaren eta kultura-eragileen arteko komunikazioa handitzeko beharra. Urrun daudela sentitzen da. – Ekoizpenerako espazioak lagatzea prozesu konplexua da. Baliabide eta izapide burokratikoak egin behar dira.

ZABALKUNDEA/ERAKUSKETA	
Indarguneak eta aukerak	Ahuleziak eta mehatxuak
<ul style="list-style-type: none"> – Udalaren kultura-eskaintza finkatuta dago eta oso zabala eta anitza da; publiko guztientzako jarduerak antolatzen dira. – Udal-programazio garrantzitsua izateaz gain, ekimen pribatua ere muskulu sendoa dagoela uste da. – Musika-ekitaldien eskaintza askotarikoa da. Hainbat interes eta generori erreparatzen zaie. – Ikus-entzunezko programazioa zabala da hirian: Gazte Film Fest, ICOFF festival... – Liburuaren sektoreko eragileak eta administrazioak elkarrekin koordinatuta daude ekitaldiak sortzeko orduan (Liburuaren Eguna, Nobela Beltzaren Nazioarteko Jaialdia...), baina oraindik ere hobetu daiteke. – Espazio publikoa agertoki gisa erabiltzearen aldeko apustuak kultura ikusgai egiteko eta eskura izateko aukera bultzatzen du. – Zabalkundean erreferenteak diren kultura-eragileak daude, hala nola Zas Kultur, arte plastikoetan. 	<ul style="list-style-type: none"> – Arriskua eta berrikuntza falta dira antzerki-programazioan. – Programazioa zentroan kontzentratzen da. – Desoreka eta proportzionaltasunik eza. Programak gainezka egiten du urteko garai batzuetan, baina hutsune handiak daude beste batzuetan. – Programazioak ez du islatzen hirian dagoen aniztasuna. Aniztasuna falta da formatuetan, generoetan, ikuspegietan... – Euskararen presentzia ez da nahikoa programazioan. – Lankidetzaren publiko-pribatua falta da. Faktore erabakigarria da kalitatean aurrerapauso bat emateko. – Programazioan gainjartzeak gertatzen dira, koordinazio eskasaren ondorioz. – Betebehar garrantzitsua dago sortzen ari den tokiko talentuarekin. – Gehiegi erabiltzen da jaialdien formatua. – Bertsolaritzari gutxi laguntzen zaio. – Ez zaio nahikoa laguntzen <i>underground</i> kultura pribatuari. – Gazteentzako eskaintzak ez ditu aurreikuspenak betetzen; ez dago <i>target</i> horrentzako eskaintza nahikorik. – Dinamika errepikakorra hautsi behar da, eta programen jarraitutasunari buruzko erabakiak hartu behar dira, horiek izan duten eraginaren arabera. – Ekimenak antolatzeko eta garatzeko zailtasun burokratikoak.

<h2>PUBLIKOA</h2>	
<h3>Indarguneak eta aukerak</h3>	<h3>Ahuleziak eta mehatxuak</h3>
<ul style="list-style-type: none"> — Publikoari aktiboki entzuteko borondatea sumatzen da, hobera egin ahal izateko. — Arte eszenikoetan, batez ere, publikoa leiala da klasikoarekiko zein abangoardiarekiko. — Publikoaren nitxoak oso fidela da musika-aretoetan. — Liburuaren sektorean, publikoak eskaintzari erantzuten dio, eta askotarikoa da interesei eta ezaugarri soziodemografikoei dagokienez. — Publiko potentzial zabala dago ikus-entzunezkoen sektorean. — Oro har, Gasteizko publikoa programazioarekiko fidela dela uste da, eta bertaratze-datuak onak dira. — Publikoa arte plastikoetan murgiltzen da, eta profesionalekin elkarreragiten du. 	<ul style="list-style-type: none"> — Ez dago publikoa ardatz duen udal-estrategiarik. — Espazio kulturalen artean ia ez dago publiko-fluxurik. — Publikoak batez besteko adin altua du. — Publikoari ez zaio nahikoa kontsultatzen. Programazioaren diseinuan parte hartu behar du. — Publikoari buruzko azterketak falta dira, eta horrek entzuleak erakartzea zailtzen du. — Kultura-jardueraren bidez ez da hiritik kanpoko publiko nahikoa erakartzen. — Kulturak oso presentzia txikia du hezkuntza-sisteman. — Publikoaren erantzuna ez da beti positiboa izaten ekitaldietan (dantza, euskarazko ekitaldiak, haurrentzako jarduerak...). — Hiriko publikoa oso lotuta dago bere ohiko programazioarekin, eta ez da arriskatzen.

<h2>FINANTZAKETA</h2>	
<h3>Indarguneak eta aukerak</h3>	<h3>Ahuleziak eta mehatxuak</h3>
<ul style="list-style-type: none"> — Arte eszenikoen sektoreak beste sektore batzuek baino baliabide gehiago ditu, baina inbertsio hori optimizatu egin behar da. 	<ul style="list-style-type: none"> — Dirulaguntzak izapidetzeko prozesua konplexua da. Burokratizazioa handiegia da, eta horrek denbora, baliabideak eta trebakuntza kontsumitzen ditu. — Inbertsio handiagoa behar da jardueren kalitatea handitzeko eta artisten prekarietatea minimizatzen. — Ikus-entzunezkoen esparruan laguntza egonkorra falta dira, eta horrek proiektu finkatuen jarraipena eragozten du. — Arte plastikoetan ekoizteko laguntzak ez dira nahikoak. — Liburuaren sektoreari lotutako ekitaldi eta jaialdietarako finantzazio handiagoa behar da. — Atzerapenak gertatzen dira ebazpenak jakinaraztean. — Proiektu estrategikoen aldeko apustua egin behar da. Testuinguru ekonomikoaren arabera hartzen dira erabakiak. — Ez dira musika-talde berriak babesten.



AZPIEGITURAK

Indarguneak eta aukerak

- **Udal-espazioak eta entsegu-lokalak lagatzeko programak oso laguntza garrantzitsua dira.**
- Hiriak, oro har, **erakusketa-azpiegitura onak ditu.**
- **Principal Antzokia eraberritzea** mugarri garrantzitsua izango da hiriaren programaziorako.
- Ondo hornitutako espazioak daude, eta elkarrekin kudea daitezke.

Ahuleziak eta mehatxuak

- **Musika-ekitaldi garrantzitsuak garatzeko azpiegitura falta da.**
- **Ekipamendu batzuk ez daude behar bezala egokituta** dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat.
- **Kontzertuak antolatzeko kostu handiak** (espazioen alokairua, baimenak...).
- **Musika-sorkuntza eta -ekoizpena sustatzeko azpiegitura gutxi.**
- **Ez dago** arte eszenikoetan ekoizteko **leku eta zentro erabilgarririk.**
- **Ikus-entzunezko emanaldietarako espazioen kostuak** oso handiak dira.
- Gaur egun, ekipamenduak **ez dira egokiak** arte eszenikoetako **abangoardiako formatuetarako.**
- Entsegu eta funtzioetarako **espazioak lagatzeak kostu ekonomiko handia** du.
- **Ez dago ikus-entzunezko lanak** hirian **erakusteko kultura-espazio nahikorik.**

KOMUNIKAZIOA

Indarguneak eta aukerak

- Ikus daitekeenez, **Udalak gero eta sentsibiltate handiagoa du komunikabideekiko** kulturaren esparruan.

Ahuleziak eta mehatxuak

- **Komunikazioan espezializatutako profilak falta dira** Kultura Zerbitzuan.
- **Ez da** hautematen **kultura-komunikaziorako politika argirik.**
- Nabarmen hobetu daiteke Udalak komunikabideekin duen harremana; **arinagoa eta eraginkorragoa izan daiteke.**
- Kultura Zerbitzuaren **komunikazio-kanalak birplanteatu behar dira.**
- **Principal Antzokiak webgune propioa merezi du.**
- **Liburutegi Sarearen hedapena eta komunikazioa hobetu daitezke.** Ez da nabarmentzen.

HERRITARREN IKUSPEGIA: Herritarrekin egindako entzute aktiboko prozesuaren emaitza




Argazkia: Endika Portillo

Kultura Zerbitzuak prospekzio demoskopikoaren zundaketa bat egin du, egoiliarrek Udalaren kultura-programazioari buruz zer ezagutza duten jakiteko.

PROGRAMAZIOARI BURUZKO PERTZEPZIO SOZIALA


Kultura-programazioaren balorazio orokorra, sexuaren arabera (0-10), 2024.



Iturria: Gasteizko Udalaren kultura-programazioari buruzko iritzi-inkesta.

Herritarrek 10etik 8 puntu eman dizkiote Udalaren kultura-programazioari. Emakumeen gogobetetze-maila gizonena baino zertxobait handiagoa da.

Kultura-programazioaren balorazio orokorra, adinaren arabera (0-10), 2024.




Iturria: Gasteizko Udalaren kultura-programazioari buruzko iritzi-inkesta.

Adinaren arabera alde handirik ez egon arren —segmentu guztiak 3 hamarren eskaseko tartean daude—, gogobetetze-maila handiagoa da 55 urtetik gorakoen artean.



Argazkia: Nuria González

Udalaren kultura-programazioaren balorazioa, programen eta zentrozen arabera (0-10), 2024.




Iturria: Gasteizko Udalaren kultura-programazioari buruzko iritzi-inkesta.

Gasteizko kultura-programazioak **oso balorazio positiboa** izan du: programa guztiek 7,4tik gorako balorazioa izan dute 0-10 eskalan, eta horietatik % 55ek 8tik gorakoa.

Jaiotza monumentala da ondoen baloratuta dagoen ekitaldia (8,7); hura da guztietan ezagunena eta jende gehien biltzen duena. Kaldearte dago bigarren balorazioan (8,4), nahiz eta nabarmentasunari eta herritarren laguntzari dagokienez ez nabarmendu.

ERABILERA ANITZEKO ESPAZIOEKIKO PERTZEPZIOA

Herritarren iritzia ekitaldi handietarako erabilera anitzeko ekipamenduen beharrari buruz, 2024.



Iturria: Gasteizko Udalaren kultura-programazioari buruzko iritzi-inkesta.

Herritar gehienak ados daude ekitaldi handietarako erabilera anitzeko ekipamendu berri bat gaitzearekin (% 57). % 57 horietatik % 70 gazteak dira.

	EMAKUMEA (%)	GIZONAK (%)	18-34 (%)	70+ (%)
Alde (%)	59,5	54,1	70,6	41,6
Kontra (%)	25,9	34,7	23,7	25,8

Sexuen araberako analisiak erakusten duenez, emakumeek jarrera hobea dute balizko kultura-ekipamendu berriaren aurrean. Jarrera kritikoak pisu handiagoa du gizonen artean, baina gutxiengoa izaten jarraitzen du hala eta guztiz ere.

Adinaren arabera, aldeak nabarmenagoak dira: 18-34 urtekoen % 70,6k onartzen du ideia, eta, beraz, 70 urtetik gorakoen % 41,6k baino ez.

HAUTEMANDAKO BEHAR NAGUSIAK



Argazkia: Gasteizko Udala

Hona hemen, laburpen gisa, diagnostiko-lanaren ondorioz hautemandako premia nagusiak:

1. **Artearen sorkuntzari ematen zaion laguntza indartzea**, horrela, kultura-eragileen lan-garapena eta -jasangarritasuna bultzatzeko.
2. **Zabalkunde eta ekoizpen kultural profesional eta berriari laguntzea**, inklusiboagoa, anitzagoa eta berdintasunezkoagoa izango den kultura-jarduera bultzatzeko aukerak sustatuz.
3. **Udalaren eta kultura-eragileen arteko lankidetzaren indartzea** eta, horrela, aukerak sor daitezela erraztea.
4. Hiriko kultura-**jardueren komunikazioa eta koordinazioa hobetzea**.
5. **Ikus-entzule kulturalen garapenean aurrera egitea**, batez ere ikus-entzuleak **erakartzeko eta dibertsifikatzeko** estrategietan, eta ikus-entzuleak areagotzea, gazteak, dibertsitate funtzionala eta kultura-aniztasuna kontuan hartuta.
6. **Hiri gisa, ekipamendu egokia** eta bermeduna **izatea**, formatu handiko kontzertu eta kultura-ekitaldietarako.
7. **Kultura-programazioan berrikuntza, parte-hartzea eta deszentralizazioa** sustatzea.
8. **Euskarazko kultura bultzatzea** eta haren presentzia sustatzeko baldintzak erraztea, bereziki hura sortzeko, ekoizteko, eskaintzeko, ikusarazteko eta transmititzeko orduan.
9. Kulturaren **genero-ikuspegia indartzea**, emakumeek sektorean duten posizioa hobetzeko eta balio-katean genero-desberdintasunak ezabatzeko.
10. Sailen arteko, erakundeen arteko eta Kultura Zerbitzuko atalen arteko **koordinazioa** hobetzea.
11. Gasteizek Estatuko eta Europako kultura-mapan duen **erreferentzialtasunean** eta posizionamenduan **aurrera egitea**.

■ HEDAPEN ESTRATEGIKOA



4.1. MISIOA ETA IKUSPEGIA

MISIO ESTRATEGIKOA: etorkizunera begira

Kultura-politika berritzailea, inklusiboa eta berdintasunezkoa sustatzea, gizarte-testuinguru berri batetik sortutako erronkei aurre egiteko. Horretarako, ausardia, konpromisoa eta lidergoa behar dira kultura-ekintzari, sektorearen premiei eta hiriko publikoari erantzuteko, lankidetzan eta etengabeko ebaluazioan oinarritutako kudeaketa aurreratuko prozesuak erabiliz.

IKUSPEGI ESTRATEGIKOA

Gasteiz kulturaren esparruan erreferentziazko Europako hiri-tako bat izatea, tokiko talentua sustatuz, ondare artistikoa babestuz, diziplina anitzeko sorkuntza bultzatuz eta publikoen aniztasuna sustatuz, betiere berrikuntza, lankidetzan, eraginkortasuna eta gobernantza ona oinarritzat hartuta.

ZEHARKAKO ARDATZAK: euskara, berdintasuna, jasangarritasuna, aniztasuna eta kulturartekotasuna

Plan Estrategikoa bere osotasunean hartzen duten **zeharkako ardatz** batzuk zehazten dira. Ardatz horiek plangintza estrategikoa bideratzen laguntzen dute, justiziarekin eta gizarte-berdintasunarekin lotutako funtsezko balioen bidez.

Euskara eta euskarazko kultura zaintzea eta sustatzea gizartearen ia eremu guztietatik iristen den eskaera bat da, eta plan honek sorkuntzatik eta ekoizpenetik zein eskaintzatik eta transmisioetik erantzun nahi dio eskaera horri. **Genero-berdintasunarekiko konpromisoa** ere plan osoari zeharka eragiten dion beste ardatzetako bat da, emakumeek Gasteizko ekosistema kulturean duten egoera hobetzeko, eta kulturaren balio-kateko maila guztietan duten garrantzia eta ikusgarritasuna aldarrikatzeko.

Jasangarritasuna ere zeharkako ardatz bat da, alde batetik, estrategia berriak ingurumena zaintzen eta errespetatzen laguntzen duelako, eta, bestetik, jasangarritasunaren ikuspegi

zabalago batetik, hiriaren garapen ekonomiko eta sozialean laguntzen duelako.

Azkenik, plan honen bidez sustatzen den kultura-ereduak **Gasteiz inklusiboagoa eta anitzagoa** lortu nahi du. Horregatik, **aniztasuna eta kulturartekotasuna** kokatu behar dira plangintza berriaren zeharkako ardatzen artean, zaurgarritasun- eta diskriminazio-egoerei aurre egiteko; izan ere, horrela errazagoa izango da kulturarako sarbide unibertsala ahalbidetzea, hainbat kolektiboren ahalduentze kulturala sustatzea edo **kulturatik bidegabekeria-modu desberdinekiko ikuspegi eta narratiba kritikoak indartzea**.

4.2. EGITURA

Hedapen estrategikoaren egiturak sei maila ditu:

- 5 erronka handi
- 5 lerro estrategiko
- 22 helburu espezifikoko
- 45 ekimen
- 46 ekintza
- 195 adierazle

Egiturako sei maila horiek plangintzari zentzua ematen diote. Lehen mailan erronka estrategikoak daude. Iparrorratz moduko bat dira, epe luzerako plangintza bideratzen dutenak, eta Gasteizko kulturak 2024-2028 aldian izango dituen erronka estrategiko nagusiak zehazten dituzte.

Bigarren mailan, planaren ardatzak markatuko dizkiguten lan-ildo estrategikoak ditugu. Lan-ildo horiek helburu espezifikoko batzuk lortzen laguntzeko balioko digute, Gasteizko kulturaren eraldatu beharreko segmentuak eraginkor bihurtzeko eta zehazteko. Azken mailan, ekintzak ditugu, helburu horiek nola lortuko diren zehaztuko dutenak.

4.3. ERRONKA ESTRATEGIKOAK

- 1 Kultur **ekipamenduak optimizatzen jarraitzea**, kultur ekintzari, sektorearen beharrei eta hiriko jendeari erantzuteko. Trakzio-proiektuak: Iradier Arenaren erabilera bultzatzea eta Principal Antzokia eraberritzea.
- 2 Politika inklusiboen bidez, **kulturarako sarbide unibertsala bermatzea**, betiere aniztasuna eta kulturartekotasuna errespetatuta, berdintasunezko ikuspegi sortzaile, eraginkor eta berritzaile batetik.
- 3 Hiriko kulturarekin konprometituta dauden eragile, erakunde eta sektoreen artean **lankidetzarako eta ezagutza transferitzeko prozesu aurreratuak** sustatzea.
- 4 **Gasteiz kultura-arloko erreferente bihurtzea**, berariazkotasunari eta nortasunari balioa emanaz.
- 5 **Partaidetza-ikuspegia duen lidergo-eredu** bat ezartzea barne-komunikazioa bultzatzeko, betiere prestakuntza-, trebakuntza- eta aintzatespen-prozesuen alde apustu eginez.

4.4. EKINTZA-PLANA: planaren lerro estrategikoak, helburuak, ekimenak eta ekintzak

Planteatutako bost erronkei erantzuteko, Gasteizko Kulturaren 2024-2028 Plan Estrategikoa **bost lerro estrategiko nagusi** identifikatzen ditu:

1. BALIO-KATEAREN FASEETAN KULTURA-JARDUERA SUSTATZEA.
2. KULTURARA SARBIDE UNIBERTSALA IZATEA.
3. SAILEN, ERAKUNDEEN, ARLO PUBLIKO-PRIBATUAREN ETA KULTURA-ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA INDARTZEA.
4. GASTEIZ KULTURA-ARLOKO ERREFERENTE BIHURTZEA.
5. KULTURA ZERBITZUAREN ANTOLAMENDU ERAGINKORRA GARATZEA.

Gainera, ekintza-planaren egiturak **22 helburu** jasotzen ditu, lerro estrategikoetan banatuta, eta horiek misioaren, diagnostikoaren eta ekintza-planaren artean lotura logiko bat ezartzen lagunduko digute:



Argazkia: Edorta Sanz

1. LERRO ESTRATEGIKOA: Balio-katearen faseetan kultura-jarduera sustatzea

HELBURUAK

- 1.1 Pilar Aróstegui Udal Artxiboaren eta Montehermoso Kulturuneko Dokumentazio Zentroaren funtsaren eta jardueraren gaineko ezagutza ikusaraztea eta indartzea.
- 1.2 Kultura-arloko prestakuntzaren eta ikerketaren esparruko erakunde eta entitateekin lankidetzaren sustatzea.
- 1.3 Sorkuntzarako laguntza-programak garatzea.
- 1.4 Sortzen ari den talentuaren sormen-prozesuan laguntzea.
- 1.5 Kultura-praktiketan sorkuntza eta berrikuntza sustatzeko proiektu berriak sustatzea.
- 1.6 Udalak tokiko kultura- eta sormen-sektoreari ematen dion laguntza indartzea.
- 1.7 Kultura-espazioak sustatzea, kultura-programazioa gehiago eta hobeto zabaltzeko.
- 1.8 Oinarri berriak sortzea Udalaren kultura-programazioa berritzeko, parte hartzeko eta deszentralizatzeko.
- 1.9 Tokiko sorkuntzen erakusketa sustatzea.
- 1.10 Hiriko kultura-programazio osoaren koordinazioa sustatzea.

2. LERRO ESTRATEGIKOA: Kulturara sarbide unibertsala izatea

HELBURUAK

- 2.1 Kulturara irisgarritasuna bultzatzea eta herritarrek hiriko kultura-estrategietan duten parte-hartzea eta inplikazioa hobetzea.
- 2.2 Kultura-komunikaziorako estrategia berri bat garatzea.

3. LERRO ESTRATEGIKOA:

Sailen, erakundeen, arlo publiko-pribatuaren eta kultura-eragileen arteko lankidetzak

HELBURUAK

- 3.1 Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak erraztea, politika publiko koherenteak eta osagarriak proiektatzeko eta praktikan jartzeko.
- 3.2 Hiriko kultura-ekintzan zuzenean edo zeharka esku hartzen duten sailen arteko lankidetzak indartzea.
- 3.3 Zeharkako udal-planak txertatzea eta gainerako udal-politikan eskubide kulturalen ikuspegia aplikatzea.
- 3.4 Lankidetzaren bidez kultura-ehuna indartzea.
- 3.5 Erakunde publikoen eta eragile pribatuen arteko lankidetzak operatibo eta eraginkorra sustatzea, inpaktua eta emaitzak maximizatzea.

4. LERRO ESTRATEGIKOA:

Gasteiz kultura-arloko erreferente bihurtzea

HELBURUAK

- 4.1 Gasteiz Europako kultura-arloko erreferente bihurtzea.
- 4.2 Udalaren ondare artistikoari balioa ematea, kultura-hiri gisa duen nortasuna eraikitzeke funtsezko estrategia gisa.

5. LERRO ESTRATEGIKOA:

Kultura Zerbitzuaren antolamendu eraginkorra garatzea

HELBURUAK

- 5.1 Kultura Zerbitzuko atalen arteko koordinazioa indartzea, efizientzia eta eraginkortasunean oinarritutako barne-egitura eta -plangintzarantz aurrera egiteko.
- 5.2 Folklore Udal Akademia «Luis Aramburu» Udal Musika Eskola erakunde autonomoan integratzea.
- 5.3 «José Uruñuela» Udal Dantza Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzaren menpeko ikastetxe publikoen sarean integratzea.

Helburu estrategiko horiek **45 ekimenetan zehazten dira. Horietako batzuk sortu berriak dira, eta beste batzuk, berriz, birbideratu eta indartu egin dira.** Guztira **64 ekintza diseinatu dira.** Ekintza horiek esku hartzeko oinarrizko unitatea izango dira, eta, ekintza-plana gauzatzeaz gain, helburuak zehazteko eta praktikan jartzeko balioko dute.

Jarraian, Planaren 5 lerro estrategikoak xehatzen dira, baita lerro bakoitzeko helburu estrategikoak eta helburu horiek lortzeko ekimenak eta esku-hartzeak ere.

1. LERRO ESTRATEGIKOA:

Balio-katearen faseetan kultura-jarduera sustatzea



Argazkia: Jon Usual

Gasteizen askotariko kultura- eta sormen-eragileek jarduten dute, kulturaren balio-kateko maila desberdinetan banatuta. Hiriaren garapen kulturala unibertso horren orekaren eta funtzionamendu onaren eta unibertso horretan gertatzen diren elkarrekintza desberdinen araberakoa da.

Hori lortzeko, balio-kateko lau fase zehatzetan esku hartzea aurreikusten da:

- Prestakuntza eta ikerketa
- Sorkuntza
- Ekoizpena
- Zabalkundea eta erakusketa

EKIMENEN GARAPENA

1.1 Helburua. Pilar Aróstegui Udal Artxiboaren eta Montehermoso Kulturuneko Dokumentazio Zentroaren funtsaren eta jardueraren gaineko ezagutza ikusaraztea eta indartzea

1.1.1. Komunikazio-kanpaina bat diseinatzea eta martxan jartzea, Pilar Aróstegui Udal Artxiboak Udalaren eta beste erakunde batzuen dokumentu- eta bibliografia-ondarearen kontserbazioan eta hedapenean egindako lana ezagutzera emateko

EKINTZAK:

- 1) Udalaren komunikazio-euskarriak eta espazio ez-konbentzionalak erabiliko dira, Udal Artxiboaren lana eta dokumentuak ezagutzera emateko.
- 2) Erakusketa bat egingo da Kultura Zerbitzuko beste atal batzuekin batera, udal-funtsak zabaltzeko interes berezia duten gaiei buruzkoa.

ARDURADUNA:

Artxiboaren atala.

URTEA:

2026 (bi ekintzak).

ADIERAZLEAK:

1. ekintza: Erabilitako komunikazio-euskarrien kopurua.
2. ekintza: Ikusgai jarritako piezen kopurua, espazioaren M2, bisitari kopurua eta bisitarien gogobetetze-maila.

1.1.2. Ekintza eta/edo programa berriak diseinatzea eta hedatzea, eta Udal Artxiboko eta Montehermoso Kulturuneko Dokumentazio Zentroko ekintzak indartzea

EKINTZAK:

- 3) Artxiboko udal-funtsa Euskarianan sartzea, euskal kulturari buruzko edukietara sartzeko atari digitala.
- 4) Montehermoso Kulturuneko ikus-entzunezko artxiboko eta Udal Artxiboko funtsen digitalizazioa areagotzea.
- 5) Udal Artxiborako erakusketa-gune propio bat egokitzea.
- 6) Montehermoso Kulturuneko mediateka Bilgunean sartzea, Euskadiko liburutegien katalogo kolektiboa.

ARDURADUNA:

3. eta 5. ekintzak: Artxiboaren Atala.
 4. ekintza: Artxiboaren atala eta Montehermoso Kulturunearen atala.
 6. ekintza: Montehermoso Kulturunearen atala.

URTEA:

3. eta 5. ekintzak: 2025.
 4. ekintza: 2026-2028.
 6. ekintza: 2025.

ADIERAZLEAK:

- 3. ekintza: Euskarianan sartutako Artxiboko funtsen/edukien kopurua.
- 4. ekintza: Digitalizatutako Artxiboko funtsen/edukien kopurua.
- 5. ekintza: Sortutako erakusketa-espazioaren ezaugarriak eta gogobetetzea.
- 6. ekintza: Bilgunean sartutako Montehermoso Kulturuneko mediatekako funts/eduki kopurua.

1.2 Helburua. Kultura-arloko prestakuntzaren eta ikerketaren esparruko erakunde eta entitateekin lankidetzaren sustatzea

1.2.1 Prestakuntza- eta ikerketa-erakundeekin lankidetzaren programak garatzea, ikasketetarako nahiz praktika eta esperientzia profesionaletarako

EKINTZAK:

- 7) Kultura Zerbitzuko ataletan praktika profesionalen eskaintza indartzea eta zabaltea.

ARDURADUNA:

Kultura Zerbitzua.

URTEA:

2025-2028.

ADIERAZLEAK:

Sustatutako lanbide-praktiketako plazen kopurua, eta praktiketako pertsonen gogobetetze-maila.

1.3 Helburua. Sorkuntzarako laguntza-programak garatzea

1.3.1. Montehermoso Kulturunearen deialdi artistikoen programa indartzea, tokiko arte plastikoen eta ikus-entzunezkoen proiektuak ekoizten eta zabalitzen laguntzeko

EKINTZAK:

8) Ekoizpenerako laguntza-programaren zuzkidura ekonomikoa handitzea.

ARDURADUNA:

Montehermoso Kulturunearen atala.

URTEA:

2025-2028.

ADIERAZLEAK:

Ekoizpenerako laguntza-programan inbertitutako euroak, eta finantzaturako proiektuen kopurua.

1.3.2 Antzoki-sarearen sorkuntza eszenikoari laguntzeko programa indartzea, ikerketa eta gaitasun artistiko eszenikoa sustatzeko

EKINTZAK:

9) Koprodukzio Programaren eta Off Local programaren zuzkidura ekonomikoa handitzea.

ARDURADUNA:

Antzerki Sarearen atala.

URTEA:

2026-2028.

ADIERAZLEAK:

Koprodukzio programan eta Off Local programan inbertitutako euroak, eta finantzaturako proiektuen kopurua.

1.3.3 Egonaldi artistikoen plan berri bat diseinatzea eta abian jartzea, arteen pertzepzioan, ulermenean eta gozamenean sentsibilizatzeko eta hezteko, eta sorkuntza artistikoa sustatzeko

EKINTZAK:

- 10) Arte eszenikoetan laguntza artistikoak eta egonaldi artistikoak emateko programa berria.
11) Montehermoso Kulturunearen programa berria, ikastetxeetan egonaldi artistikoak egiteko.

ARDURADUNA:

10. ekintza: Antzoki Sarea.
11. ekintza: Montehermoso Kulturunearen atala.

URTEA:

Bi ekintzak: 2026-2028.

ADIERAZLEAK:

10. ekintza: Egindako laguntza eszenikoen kopurua, egonaldiaren zuzkidura, sortutako obren/produktuen kopurua, parte-hartzaileen gogobetetze-maila.
11. ekintza: Ikastetxeetan egindako egoitza artistikoen kopurua, egonaldien zuzkidura, sortutako obren/produktuen kopurua, parte-hartzaileen gogobetetze-maila.

1.4 Helburua. Sortzen ari den talentuaren sormen-prozesuan laguntzea

1.4.1 Gazteentzako sorkuntza-programak, artista berrien sormen-prozesuak sustatzeko	
EKINTZAK: 12) Montehermoso Kulturunearen MH+EHU deialdia, Arte Ederren Fakultateko ikasleei zuzendua. 13) Sortzen gazteak sortzeko programa, Gazteria Zerbitzuarekin lankidetzan.	
ARDURADUNA: 12. ekintza: Montehermoso Kulturunearen atala. 13. ekintza: Kultur Ekintzaren Atala, Zonetako Kultur Jardueren Atala eta Antzoki Sarea.	URTEA: Bi ekintzak: 2025-2028.
ADIERAZLEAK: 12. ekintza: Deialdian inbertitutako euroak, onuradun kopurua, sortutako proiektu kopurua, parte-hartzaileen gogobetetze-maila. 13. ekintza: Programan inbertitutako euroak, onuradun kopurua, lagundutako proiektuen kopurua, parte-hartzaileen gogobetetze-maila.	

1.5 Helburua. Kultura-praktiketan sorkuntza eta berrikuntza sustatzeko proiektu berriak sustatzea

1.5.1 Tokiko kultura-eragileek sustatutako ekimenak eta sorkuntza-guneak abian jartzeko laguntza	
EKINTZAK: 14) «Sormen Lantegiak-Fábricas de Creación» laguntza-programa berria.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua.	URTEA: 2027-2028.
ADIERAZLEAK: Programan inbertitutako euroak, pertsona/erakunde onuradunen kopurua, lagundutako proiektuen kopurua, parte-hartzaileen gogobetetze-maila.	

1.6 Helburua. Udalak tokiko kultura- eta sormen-sektoreari ematen dion laguntza indartzea

1.6.1 Irisgarritasun handiagoa eta kultura-sarea gehiago indartzea bermatuko duten dirulaguntzen deialdia
EKINTZAK: 15) Zuzkidura ekonomikoa berrikustea, eta kultura-proiektuei eta ekitaldi eta jaialdi finkatuei laguntzeko dirulaguntza-lerroaren oinarriak eta balorazio-irizpideak birformulatzea.

ARDURADUNA: Kultur Ekintzaren Atala	URTEA: 2026-2028
ADIERAZLEAK: Dirulaguntza-lerroan inbertitutako euroak, pertsona/erakunde onuradunen kopurua, sustatutako proiektu/ekitaldi/jaialdien kopurua.	

1.7 Helburua. Kultura-espazioak sustatzea, kultura-programazioa gehiago eta hobeto zabaltzeko

1.7.1 Iradier Arenaren erabilera sustatzea, eskaera soziokulturalari erantzuteko	
EKINTZAK: 16) Iradier Arena eraberritzeko aukerak aztertzea.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua.	URTEA: 2027.
ADIERAZLEAK: Iradier Arena eraberritzeko kontratua, kontratuaren kostua, kalitatea eta bideragarritasun ekonomiko, tekniko eta sozialaren txostenaren egokitasuna.	

1.7.2 Principal Antzokia eraberritzea, haren irisgarritasuna eta funtzionamendua hobetzeko	
EKINTZAK: 17) Laguntza teknikoko zerbitzuen kontratua, Principal Antzokia eraberritu ondoren, ekipamendu eszenikoen eta altzarien beharren programa egiteko. 18) Principal Antzokirako ekipamendu eszenikoaren eta altzarien kontratua.	
ARDURADUNA: Antzoki Sarea.	URTEA: 17. ekintza: 2024. 18. ekintza: 2026.
ADIERAZLEAK: 17. ekintza: Kontratua egitea, kontratuaren kostua, kalitatea eta beharren txostenaren egokitasuna. 18. ekintza: Inbertsioaren kostua, ekipamendu- eta altzari-elementuen kopurua, ekipamendu eszenikoaren eta altzarien egokitzapen-maila, eta gogobetetze-maila eta erabilgarritasuna.	

<p>1.7.3 Antzoki Sarearen espazioak hobetzea eta egokitzea, Principal Antzokia eraberritzearen ondorioz</p>	
<p>EKINTZAK: 19) Felix Petite Antzokiak Ibaiondo Gizarte Etxean dituen kamerino eta biltegien obren proiektua egiteko eta betearazteko kontratua.</p>	
<p>ARDURADUNA: Antzoki Sarea.</p>	<p>URTEA: 2024-2028.</p>
<p>ADIERAZLEAK: Inbertsioaren kostua, kamerinoetan eta biltegietan egindako hobekuntzen kopurua, erabilgarritasun-maila eta egindako obrekiko gogobetetzea.</p>	
<p>1.7.4 Montehermoso Kulturunearen erabilera sustatzea, arte eta kultura garaikideko zentroa indartzeko eta ikusarazteko</p>	
<p>EKINTZAK: 20) Aholkularitza eta laguntza teknikoko zerbitzurako kontratua, Montehermoso Kulturunearen azterketa estrategikorako eta sustapen-plana egiteko. 21) Ekintza-plana garatzeko laguntza-kontratua.</p>	
<p>ARDURADUNA: Montehermoso Kulturunearen atala.</p>	<p>URTEA: 20. ekintza: 2024. 21. ekintza: 2025-2028.</p>
<p>ADIERAZLEAK: 20. ekintza: Montehermoso Kulturunea sustatzeko plana egitea, ekintza kopurua, eraldatzeko gaitasuna, egindako lanarekiko gogobetetze-maila. 21. ekintza: Ekintza-plana egitea, urtero abian jarritako ekintzen kopurua, ekintza-planaren eraldaketa edo inpakturako gaitasuna, egindako lanarekiko gogobetetze-maila.</p>	
<p>1.7.5 Principal Antzokia birmoldatzen den bitartean Udal Musika Bandaren programaziorako gune erreferente bat finkatzea</p>	
<p>EKINTZAK: 22) Europa Biltzar Jauregia egokitzeko jarduerak, Udal Musika Bandaren programazioa bertan garatu dadin.</p>	
<p>ARDURADUNA: Udal Musika Bandaren atala.</p>	<p>URTEA: 2024-2028.</p>
<p>ADIERAZLEAK: Egokitzapenean egindako inbertsioa, egindako hobekuntzen/egokitzapenen kopurua, lanekiko gogobetetze-maila, Udal Musika Bandak Europa Biltzar Jauregian egindako emanaldien kopurua, emanaldietara joan diren pertsonen kopurua.</p>	

1.7.6 Udaleko eta kanpoko espazioak laga daitezela sustatzea, tokiko kultura-sorkuntzen erakusketa errazteko**EKINTZAK:**

23) Lan-mahai bat abian jartzea, espazioak lagatzeko gaur egungo prozedurak eta izapideak berrikusteko eta optimizatzeko.

ARDURADUNA:

Kultur Ekintzaren Atala, Zonetako Kultur Jardueren Atala eta Antzoki Sarea, Gobernu Irekiaren eta Gizarte Etxeen Sailarekin elkarlanean.

URTEA:

2025

ADIERAZLEAK:

Optimizatutako espazioak lagatzeko prozeduren eta izapideen kopurua, egindako lagapenen kopurua, erakunde/pertsona eskatzaileek optimizazio-prozesuekin duten gogobetetze-maila.

1.8 Helburua. Oinarri berriak sortzea Udalaren kultura-programazioa berritzeko, parte hartzeko eta deszentralizatzeko**1.8.1 Auzoetan kultura indartzeko eta kultura-eskaintzaren deszentralizazioa sustatzeko ekintza berriak hedatzea****EKINTZAK:**

24) Auzoetako programaziorako zuzkidura ekonomikoa handitzea.

25) Lantalde bat sortzea, Zonetako Kultur Jardueren, Kultur Ekintzaren eta Antzoki Sarearen atalen artean programazioa koordinatzeko.

ARDURADUNA:

Bi ekintzak: Kultur Ekintzaren Atala, Zonetako Kultur Jardueren Atala eta Antzoki Sarea.

URTEA:

24. ekintza: 2025-2028.
25. ekintza: 2025-2028.

ADIERAZLEAK:

24. ekintza: Inbertitutako euroak, jarduera kopurua, bertaratutako pertsona kopurua eta bizilagunen gogobetetze-maila (auzo bakoitzeko).

25. ekintza: Lantaldeak egindako bileren kopurua, bertaratutako pertsona eta unitate kopurua, gauzatutako koordinazio-jardueren kopurua.

1.8.2 Berrikuntza udal-programazio eszenikoan**EKINTZAK:**

26) Formatu eta lengoaia berriko ikuskizunak programatzea Antzoki Sarean eta Kaldearten, dramaturgia ez-konbentzionaletan arreta berezia jarrita.

ARDURADUNA: Kultur Ekintzaren Atala eta Antzoki Sarea.	URTEA: 2025-2028.
ADIERAZLEAK: Programatu diren formatu berriko ikuskizunen eta lengoaien kopurua, bertaratutako pertsonen kopurua eta bertaratuen gogobetetze-maila.	

1.8.3 Etengabeko hobekuntza eta berrikuntza jai tradizioaletako programetan, errealitate sozialari erantzuteko	
EKINTZAK: 27) Olentzero eta Mari Domingiren Gabonetako programa eguneratzea. 28) Gasteizko jai tradizioaletan protagonista diren jai-elementuen erakusketa-gunea, Erraldoien eta buruhandien etxea.	
ARDURADUNA: 27. ekintza: Kultur Ekintzaren Atala. 28. ekintza: Kultura Zerbitzua.	URTEA: Bi ekintzak: 2025-2028.
ADIERAZLEAK: 27. ekintza: Ingurune berrira eramatea, bertaratutako pertsonen kopurua eta bertaratuen gogobetetze-maila. 28. ekintza: Gunearen ezaugarriak, bisitari kopurua eta bisitarien gogobetetze-maila.	

1.8.4 Liburutegi Sarea indartzea, ikusaraztea eta duen garrantzia nabarmentzea	
EKINTZAK: 29) Liburutegi-sarea modernizatzeko eta berritzeko azterlana.	
ARDURADUNA: Zonetako Kultur Jardueren Atala.	URTEA: 2026
ADIERAZLEAK: Azterlana egitea, ekintza kopurua, eraldatzeko gaitasuna, egindako lanarekiko gogobetetze-maila.	

1.9 Helburua. Tokiko sorkuntzen erakusketa sustatzea

1.9.1 Kontratazio-irizpideak berrikustea, tokiko eragileek Udalaren kultura-programazioan parte har dezaten sustatzeko	
EKINTZAK: 30) Kultura-jarduerak programatzen dituzten Kultura Zerbitzuaren ataleko teknikariek osatutako lan-mahaia martxan jartzea.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzuko atal guztiak.	URTEA: 2025.

ADIERAZLEAK:

Lan-mahaiaren bilera kopurua, bertaratutako pertsonen eta unitateen kopurua, egindako ekintzen/aldaketen kopurua.

1.9.2 Tokiko bandentzat musika-zirkuitu egonkor bat diseinatzea**EKINTZAK:**

31) Udal-ekimenetan tokiko musika-banden emanaldiak sustatzeko deialdia.

ARDURADUNA:

Kultur Ekintzaren Atala, Montehermoso Kulturunearen Atala eta Zonetako Kultur Jardueren Atala.

URTEA:

2025-2028.

ADIERAZLEAK:

Deialdian inbertitutako euroak, pertsona/talde onuradunen kopurua, egindako musika-emanaldien kopurua, parte-hartzaileen gogobetetze-maila.

1.10 Helburua. Hiriko kultura-programazio osoaren koordinazioa sustatzea

1.10.1. Agenda partekatuko estrategia bat lantzeko azterlana, kultura-programazioa orekatzeko

EKINTZAK:

32) Kultura-eragileek eta udal-teknikariek osatutako lantalde bat sustatzea eta koordinatzea, Kultura Elkargunearen esparruan.

ARDURADUNA:

Kultura Zerbitzua.

URTEA:

2025.

ADIERAZLEAK:

Lantaldeak egindako bileren kopurua, bertaratutako pertsonen eta erakundeen kopurua, sustatutako ekimenen/ekintzen kopurua.

2. LERRO ESTRATEGIKOA:

Kulturara sarbide unibertsala izatea



Argazkia: Gasteizko Udala

Gasteizko Udalak, hirian hurbileko kultura-zerbitzuen emalea den aldetik, herritarren kultura-eskubideak zaintzeko betebeharra eta erantzukizuna du, eta, horretarako, funtsezkoa da hirian kulturarako sarbide unibertsala bermatzea.

Planaren bigarren ardatz estrategiko honen ideia nagusia da pertsona guztiei kulturarako sarbidea berdintasun-baldintzetan ematea eta Gasteizko kultura-bizitzan askatasunez parte hartzera bideratutako estrategia bat garatzea.

Azken finean, lerro estrategiko horren ezaugarri nagusia da kultura funtsezko tresna dela Gasteiz berdintasunez eta gizarte- eta lurralde-kohezioz eraldatzeko, eta hiriko kultura-bizitzan aniztasuna bultzatzeko.

Zentzu horretan, komunikazioa estrategia bat da, beste batzuen artean, eta modu erabakigarrian eragiten du publikoak kulturarako duen sarbidean. Horregatik, plangintza berriak irisgarritasunari eta eskubide kulturei buruzko lerro estrategiko horren barruan sartzen du kulturaren zabalkundea.

EKIMENEN GARAPENA

2.1 Helburua. Kulturara irisgarritasuna bultzatzea eta herritarrek hiriko kultura-estrategietan duten parte-hartzea eta inplikazioa hobetzea

2.1.1 Udalaren kultura-programetan parte-hartzea eta inklusioa sustatzeko bitartekaritza-ekintzak eta -programak indartzea

EKINTZAK:

- 33) Antzoki Sarearen bitartekaritza-programak garatzea: «Bitartekaritza-Eraldaketa-Hezkuntza» ornitorrinko proiektua, Atalak 2.0 proiektua eta Fevas tailerrak.
- 34) Interakzioak programaren garapena, bertako artistekin egindako elkarrizketen zikloa Montehermoso Kulturunean.

<p>ARDURADUNA: 33. ekintza: Antzoki Sarea. 34. ekintza: Montehermoso Kulturunearen Atala.</p>	<p>URTEA: 2024-2028.</p>
<p>ADIERAZLEAK: 33. ekintza: Udalak parte hartzen duen proiektuen kopurua, proiektuetan parte hartu duten pertsonen/erakundeen kopurua, parte-hartzaileen gogobetetze-maila. 34. ekintza: Parte hartu duten tokiko artisten kopurua, bertaratutako pertsonen kopurua, parte-hartzaileen gogobetetze-maila.</p>	

<p>2.1.2 Publikoen plan bat diseinatzea, gazteengan, dibertsitate funtzionaleko pertsonengan eta kulturartekotasunean oinarritua</p>	
<p>EKINTZAK: 35) Kultura Zerbitzuaren kultura-jarduerarako Publikoen Plana egiteko eta ekintzak zabaltzeko kontratua.</p>	
<p>ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua.</p>	<p>URTEA: 2025.</p>
<p>ADIERAZLEAK: Plana egitea, ekintza kopurua, eraldatzeko gaitasuna, egindako lanarekiko gogobetetze-maila.</p>	

2.2 Helburua. Kultura-komunikaziorako estrategia berri bat garatzea

<p>2.2.1 Udal Antzoki Sarearen programazioaren zabalkundea indartzea</p>	
<p>EKINTZAK: 36) Komunikazio-kanpaina, Udal Antzoki Sarearen programazioaren jarraipena eta kalitatea zabaltzeko, sareko antzokiak ikusarazteko, egungo publikoa mantentzeko eta publiko berriak erakartzeko.</p>	
<p>ARDURADUNA: Antzoki Sarea.</p>	<p>URTEA: 2024.</p>
<p>ADIERAZLEAK: Erabilitako komunikazio-euskarrien kopurua, heldu zaion populazioa eta Antzoki Sarearen programazioarekiko ezagutza- eta bertaratze-maila.</p>	

2.2.2 Kultura Zerbitzuaren Komunikazio Plana diseinatzea

EKINTZAK:

- 37) Lan-mahai bat abian jartzea, Kultura Zerbitzuaren komunikazio-kanalak eta -tresnak aztertzeko eta berriz definitzeko (Go Gasteiz Kultura, VG_Kulturaren sare sozialetako profilak).
- 38) Kultura Zerbitzuaren Komunikazio Plana egiteko laguntza teknikorako kontratua, Publikoen Plana oinarritzat hartuta.

ARDURADUNA:

Kultura Zerbitzua (bi ekintzak).

URTEA:

37. ekintza: 2024.

38. ekintza: 2026.

ADIERAZLEAK:

37. ekintza: Lantaldeak egindako bileren kopurua, bertaratutako pertsonen eta unitateen kopurua, hobetutako komunikazio-kanal eta -tresnen kopurua, definitutako ekintzen kopurua.
38. ekintza: Plana egitea, ekintza kopurua, eraldatzeko gaitasuna, egindako lanarekiko gogobetetze-maila.

3. LERRO ESTRATEGIKOA:

Sailen, erakundeen, arlo publiko-pribatuaren eta kultura-eragileen arteko lankidetzaz



Argazkia: Gasteizko Udala

Koherentzia eta osagarritasuna kulturaren arloko esku-hartze publikoan. Horixe da, hain zuzen ere, lerro estrategiko honek sailarteko eta erakundearteko esparruan aurre egin nahi dion erronka nagusia. Horretarako, kulturaren esparruan zuzenean edo zeharka lan egiten duten arlo eta sailen arteko koordinazio eraginkorreko mekanismoak eta jarduketak abian jartzera, hobetzera edo bultzatzera bideratzen ditu bere esku-hartze zehatzak, bereziki proiektu partekatutako garatzera; izan ere, horiek zeharkakotasuna eta osagarritasuna izan behar dute beti.

Lankidetzaren publiko-pribatua lehen mailako aliatua da administrazio publikoarentzat, batez ere anbizio handiko aurrekontuak antolatzean, aurrekontu handiak izateaz gain, maila burokratikoan ere konplikazioak dakartzan aurrekontuak izaten baitira. Horregatik, antolatzaile eta sustatzailearen eginkizuna izateaz gain, lan-ildo honek Kultura Zerbitzuaren bideratzaile eginkizuna bultzatzen du, sektore pribatuarekiko ituna indartuz.

EKIMENEN GARAPENA

3.1 Helburua. Erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzaren erraztea, politika publiko koherenteak eta osagarriak proiektatzeko eta praktikan jartzeko

3.1.1 Dauden erakunde-organoen parte hartzea, erakunde publikoekin komunikazio- eta lankidetzaren espazioak sortzeko

EKINTZAK:

- 39) HAKOBA Herri Administrazioen Kultura eta Ondare Batzordean parte hartzea.
- 40) KulturAraba Bulegoarekin lankidetzaren espazioak sortzea.

ARDURADUNA:

Kultura Zerbitzua (bi ekintzak).

URTEA:

Bi ekintzak: 2024-2028.

ADIERAZLEAK:

- 39. ekintza: Udalarekin egindako bileren kopurua, erakundeen artean partekatutako proiektuen kopurua.
- 40. ekintza: Partekatutako proiektuen kopurua, heldu zaien pertsonen/erakundeen kopurua.

3.2 Helburua. Hiriko kultura-ekintzan zuzenean edo zeharka esku hartzen duten sailen arteko lankidetzaren indartzea

3.2.1 Koordinazioa indartzea Udalaren kultura-programazioa gauzatzen diharduten sailekin eta zerbitzuekin, plangintza hobetzeko eta baliabideak optimizatzen	
EKINTZAK: 41) Sailen arteko lantaldeak osatzea, jarduteko prozedura eta protokolo espezifikoak sortzeko.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua.	URTEA: 2026.
ADIERAZLEAK: Lantaldeen kopurua, lantalde bakoitzaren bilera kopurua, bertaratutako pertsonen eta zerbitzuen kopurua, egindako prozeduren eta protokoloen kopurua, koordinazio-gorabeheren kopurua.	
3.2.2 Berdintasun Zerbitzuekin partekatutako proiektuak indartzea, Udalaren kultura-ekintzan genero-ikuspegia bermatzeko	
EKINTZAK: 42) Berdintasun Sarean parte hartzea, EKIN! Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren (2023-2030) esparruan.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua eta Berdintasun Zerbitzua.	URTEA: 2024-2028.
ADIERAZLEAK: Partekatutako proiektuen kopurua, heldu zaien pertsonen/erakundeen kopurua.	
3.2.3 Proiektuetan Ekonomia Sustapen eta Enplegu Sailarekin elkarlanean aritzea, kultura- eta sormen-sektoreak sustatzeko	
EKINTZAK: 43) Gasteizko kultura- eta sormen-industrien inguruan produkzio-jarduera bultzatzeko planean elkarlanean aritzea, «Zabalgunea, eko-barruti ekintzailea» proiektuaren esparruan.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua.	URTEA: 2024-2028.
ADIERAZLEAK: Sustapen Planean proposatutako ekintzen kopurua, heldu zaien pertsona/erakundeen kopurua.	

3.2.3 Euskara Zerbitzuarekin koordinatzea, euskarazko kultura-programazioa indartzeko**EKINTZAK:**

44) Lantalde egonkorra osatzea, Euskara eta Kultura Zerbitzuetako udal-teknikariek osatua.

ARDURADUNA:

Kultura Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua.

URTEA:

2025.

ADIERAZLEAK:

Lantaldeak egindako bileren kopurua, bertaratutako pertsonen eta erakundeen kopurua, sustatutako proiektu partekatuen kopurua.

3.2.5 Gasteiz Hiri Hezitzailea programako udal hezkuntza-jarduerak finkatzea, Hezkuntza Zerbitzuak koordinatuta**EKINTZAK:**

45) Antzerki Pixka bat, Gu ere Bertsotan, Zinea Lagun!, Dantza-tzen! programak garatzea, eta ikastetxeentzako antzerkia: Beñat Etxepare, Zatoz antzokira.

ARDURADUNA:

Kultura Zerbitzua eta Hezkuntza Zerbitzua.

URTEA:

2024-2028.

ADIERAZLEAK:

Garatutako hezkuntza-jardueren kopurua, parte-hartzaileen kopurua (jardueraren arabera), parte-hartzaileen gogobetetze-maila.

3.3 Helburua. Zeharkako udal-planak txertatzea eta gainerako udal-politikan eskubide kulturalen ikuspegia aplikatzea**3.3.1 Udal-zerbitzuen planetan parte hartzea eta lankidetzan aritzea****EKINTZAK:**

46) Ekintza zehatzak garatzea: «Vitoria-Gasteiz Hiri Hezitzailea» 2023-2027 Hezkuntza Plana, V. Gazte Plana, PLINA – Haur eta Nerabeentzako Udal Plana, ESEP Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

ARDURADUNA:

Kultura Zerbitzua, Hezkuntza Zerbitzua, Gazteria Zerbitzua, Haur eta Nerabeen Zerbitzua, Euskara Zerbitzua.

URTEA:

2024-2028.

ADIERAZLEAK:

Garatutako ekintza partekatuen kopurua, egindako inbertsio ekonomikoa, partekatutako ekintzen irismena.

3.4 Helburua. Lankidetzaren bidez kultura-ehuna indartzea

3.4.1 Udalaren kultura-programen esparruan kulturako profesionaleri aholku emateko eta laguntzeko programa berri bat diseinatzea eta martxan jartzea	
EKINTZAK: 47) Kultura-eragileei zuzendutako prestakuntza-saio espezifikoak antolatzea, laguntzak eta dirulaguntzak izapidetzeari buruzkoak. 48) Kultura Zerbitzuan erreferentziazko pertsona bat izendatzea, kultura-eragileei dirulaguntzak eta laguntzak izapidetzen laguntzeko.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua (bi ekintzak).	URTEA: 2025-2028.
ADIERAZLEAK: 47. ekintza: Garatutako prestakuntza-jardueren kopurua, parte-hartzaileen kopurua (prestakuntzaren arabera), parte-hartzaileen gogobetetze-maila. 48. ekintza: Aholkularitza izan duten dirulaguntzen eta laguntzen kopurua, artatutako pertsonen/erakundeen kopurua, parte-hartzaileen gogobetetze-maila.	

3.4.2 Sektoreka banatzearen aldeko apustua, kultura-ehunaren eskaerei erantzuteko	
EKINTZAK: 49) Lantalde sektorialak martxan jartzea eta koordinatzea Kultura Elkargunearen bitartez.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua, Kultura Elkargunearekin lankidetzan.	URTEA: 2025-2028.
ADIERAZLEAK: Lantaldeen kopurua, lantalde bakoitzaren bileren kopurua, bertaratutako pertsonen eta erakundeen kopurua, kudeatutako sektore-eskaeren eta ezarritako hobekuntzen kopurua, parte-hartzaileen gogobetetze-maila.	

3.5 Helburua. Erakunde publikoen eta eragile pribatuen arteko lankidetzaren operatiboa eta eraginkorra sustatzea, inpaktua eta emaitzak maximizatzeko

3.5.1 Hitzarmenen bidez laguntza-programa garatzea, hirian erreferente diren tokiko kultura-eragileen proiektuak sustatzeko eta bultzatzeko.

EKINTZAK:

50) Dirulaguntza izendunen zuzkidura ekonomikoa eta klausulak berrikustea.

ARDURADUNA:

Kultura Zerbitzua.

URTEA:

2026.

ADIERAZLEAK:

Dirulaguntza izendunetan inbertitutako euroak, berrikusitako klausulen kopurua, pertsona/talde onuradunen kopurua, proposatutako ekintzen kopurua.

4. LERRO ESTRATEGIKOA:

Gasteiz kultura-arloko erreferente bihurtzea



Argazkia: Adrián Ruiz de Hierro

Hiri baten nortasuna—horrek egiten du bereizgarri biztanleen eta bisitarien artean— balioen eta ezaugarrien konbinazio bat da, eta horien artean kultura nabarmentzen da. Horrela, bada, laugarren lan-ildo estrategiko honek kultura Gasteizko nortasunaren elementu estrategiko gisa kokatzeko erronkari heltzen dio.

Gaur egun, Gasteiz ingurumenarekiko konpromiso handia duen hiri gisa hartzen da mundu osoan, eta hori argi geratu zen Green Capital izendapenarekin; izan ere, liderra da ingurumen-jasangarritasunaren arloan. Horrela, bidea dagoeneko hasita duenez, bide horretatik aurrera jarraitzea da erronka, erreferentziazko hiri kultural bihurtzeko.

Hiriaren nortasunarekin lotutako estrategia horrek hainbat eremutan eta arlotan eragiten du. Alde batetik, barne-begirada batetik, hiriaren nortasuna eta kultura, historia eta tradizioak balioesten ditu. Bere idiosinkrasia, azken batean. Ekonomiaren ikuspegitik, zalantzarik gabe, kultura eragile ekonomiko garrantzitsua da hiri batentzat; izan ere, enplegua sortzen du eta jarduera erakartzen du, eta horrek garapen ekonomikoari laguntzen du.

EKIMENEN GARAPENA

4.1 Helburua. Gasteiz Europako kultura-arloko erreferente bihurtzea

4.1.1 Gasteiz kulturaren esparruan balioan jarriko duten ekintzak garatzea, bai hirian, bai kanpoan

EKINTZAK:

- 51) Hirian erreferentziazko kultura-ekitaldi bat garatzea.
- 52) Urtero ekitaldi bat egitea, kulturaren esparruan arrastoa uzteagatik nabarmentzen diren pertsonak edo erakundeak aintzatesteko.
- 53) Kulturaren esparruan erreferente izango den nazioarteko kongresu bat sustatzea.
- 54) Estatuko eta nazioarteko sare, zirkuitu eta biltzarretan parte hartzea, honako hauetan, besteak beste: Artekale, Karrikan, Aquitanie Sarea, Pirenart, Antzoki Publikoen Espainiako Sarea, Acerca Cultura, RECE Kultura eta Hezkuntza.

<p>ARDURADUNA: 51., 52. eta 53. ekintzak: Kultura Zerbitzua. 54. ekintza: Kultura Zerbitzuko atal guztiak.</p>	<p>URTEA: 51. ekintza: 2026-2028. 52. ekintza: 2027-2028. 53. ekintza: 2027. 54. ekintza: 2024-2028.</p>
<p>ADIERAZLEAK: 51. ekintza: Bertaratuen kopurua, parte hartu duten artisten kopurua, ekitaldiaren inpaktua. 52. ekintza: Bertaratuen kopurua, ekitaldiaren irismena. 53. ekintza: Biltzarrean izena eman duten pertsonen kopurua, parte hartu duten tokiko eta kanpoko kultura-eragileen kopurua, bertaratuen gogobetetze-maila. 54. ekintza: Udalak parte hartzen duen sareen kopurua, egindako bileren kopurua, egindako aurkezpenen kopurua.</p>	

4.2 Helburua. Udalaren ondare artistikoari balioa ematea, kultura-hiri gisa duen nortasuna eraikitzeko funtsezko estrategia gisa

<p>4.2.1 Hiriko ondare artistikoa kontserbatzea eta zaharberritzea</p>	
<p>EKINTZAK: 55) Hiriko ondare artistikoa mantentzeko eta kontserbatzeko beste plan bat egitea.</p>	
<p>ARDURADUNA: Bi ekintzak: Kultur Ekintzaren Atala.</p>	<p>URTEA: Bi ekintzak: 2025-2028.</p>
<p>ADIERAZLEAK: Ekintza-plana egitea, egindako mantentze- eta zaharberritze-jarduketan kopurua, planean inbertitutako euroak.</p>	

<p>4.2.2 Hiriko arte-lanaz gozatzeko aukera zabaltzea eta sustatzea, betiere errespetuan eta ezagutzan oinarrituta</p>	
<p>EKINTZAK: 56) Herritarrak udal-ondare artistikoaren balioaz sentsibilizatzeko plan bat egitea, errespetua eta ezagutza sustatzeko.</p>	
<p>ARDURADUNA: Kultur Ekintzaren Atala.</p>	<p>URTEA: 2025.</p>
<p>ADIERAZLEAK: Sentsibilizazio-plana egitea, abian jarritako ekintzen kopurua, kanpainaren irismena, kanpainaren hartzaileen gogobetetze-maila.</p>	

5. LERRO ESTRATEGIKOA:

Kultura Zerbitzuaren antolamendu eraginkorra garatzea



Argazkia: Edorta Sanz

Lerro estrategiko hau Kultura Zerbitzuaren barruko barne-egitura eta funtzioak aztertzearen garrantzian oinarritzen da, hiriko kultura-ekintzaren eraginkortasuna kontrastatzeko eta hobekuntza-arloen eta -eremuen ahalik eta irudirik zehatzena lortzeko.

Lan-ildo honen barruan sartzen diren esku-hartzeak Kultura Zerbitzuko zazpi atalen arteko koordinazioa indartzera bideratuta daude, haien barne-egiturak eraginkortasunari dagokionez aurrera egin dezan.

Zerbitzuaren egiturari koherentzia eta kohesio handiagoa emateaz gain, barne-orientazio estrategiko horrek garapen eta hazkunde profesionalari lotutako ikuspegia ere eskaintzen du. Era berean, Folklore Akademia «Luis Aramburu» Udal Musika Eskola erakunde autonomoan txertatzeari ekingo zaio.

EKIMENEN GARAPENA

5.1 Helburua. Kultura Zerbitzuko atalen arteko koordinazioa indartzea, efizientzian eta eraginkortasunean oinarritutako barne-egitura eta -plangintzarantz aurrera egiteko

5.1.1 Sarean lan egiteko tresna bat diseinatzea eta ezartzea	
EKINTZAK: 57) Lantalde bat martxan jartzea Informatika Zerbitzuarekin, programazioa kudeatzeko aplikazio informatiko berri bat garatzeko.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua eta Informatika Zerbitzua.	URTEA: 2026.
ADIERAZLEAK: Lantaldearen bilera kopurua, bertaratutako pertsonen eta erakundeen kopurua, aplikazio berriaren erabilera-maila, programazioa kudeatzeko aplikazio informatiko berriarekiko gogobetetze-maila.	

5.1.2 Kultura Zerbitzuan kudeaketa-prozesuak ezartzea	
EKINTZAK: 58) Lan-prozesuak berrikustea eta eguneratzea.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua eta Funtzio Publikoaren Saila.	URTEA: 2026.
ADIERAZLEAK: Berrikusitako eta/edo eguneratutako prozesuen kopurua, lan-prozesuetako gorabeheren kopurua, lan-prozesuetan emandako batez besteko denbora, lan-prozesuekiko gogobetetze-maila.	

5.1.3 Kultura Zerbitzuko teknikarien trebakuntza	
EKINTZAK: 59) Kultura Zerbitzuko teknikarientzako berariazko prestakuntza-programa bat garatzea kulturaren arloan eta zeharkako beste arlo batzuetan, hala nola, berdintasunean, irisgarritasunean, jasangarritasunean edo kulturartekotasunean.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua.	URTEA: 2025-2028.
ADIERAZLEAK: Egindako prestakuntza-jardueren kopurua, parte-hartzaileen kopurua (prestakuntza bakoitzeko).	

5.1.4 Kulturaren 2024-2028 Plan Estrategikoaren plangintza operatiboa eta jarraipen eraginkorra	
EKINTZAK: 60) Gasteizko 2024-2028 Kultura Plan Estrategikoaren urteko kudeaketa-planak egitea. 61) Gasteizko 2024-2028 Kultura Plan Estrategikoaren urteko jarraipena eta ebaluazioa egitea.	
ARDURADUNA: Kultura Zerbitzua (bi ekintzak).	URTEA: 2024-2028.
ADIERAZLEAK: 60. ekintza: Urteko kudeaketa-plana egitea, urtero abian jarritako ekintzen kopurua, ekintza-planaren eraldatzeko/eragiteko gaitasuna. 61. ekintza: Jarraipen- eta ebaluazio-txostenak egitea.	

5.2 Helburua. Folklore Udal Akademia «Luis Aramburu» Udal Musika Eskola erakunde autonomoan integratzea

5.2.1 Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolei buruzko maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretua betetzeko Administrazioako izapideak	
EKINTZAK: 62) Folklore Akademia «Luis Aramburu» Udal Musika Eskolan integratzea. 63) «José Uruñuela» Udal Dantza Kontserbatorioko arautu gabeko prestakuntza «Luis Aramburu» Udal Musika Eskolan integratzea.	
ARDURADUNA: 62. ekintza: Folklore Akademia eta «Luis Aramburu» Udal Musika Eskola Atala. 63. ekintza: «José Uruñuela» Udal Dantza Kontserbatorioa eta «Luis Aramburu» Udal Musika Eskola.	URTEA: Zehaztu gabe.
ADIERAZLEAK: 62. ekintza: Folklore Akademia «Luis Aramburu» Udal Musika Eskolan integratu ondoren egindako proiektuen kopurua, unitate integratu berrian egindako inbertsioa. 63. ekintza: Txertatutako prestakuntza-ikastaroen kopurua, prestatutako pertsonen kopurua, prestatutako pertsonen gogobetetze-maila.	

5.3 Helburua. «José Uruñuela» Udal Dantza Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzaren menpeko ikastetxe publikoen sarean integratzea

5.3.1 «José Uruñuela» Udal Dantza Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzaren menpeko ikastetxe publikoen sarean sartzeko administrazio-prozesua	
EKINTZAK: 64) «José Uruñuela» Udal Dantza Kontserbatorioa Eusko Jaurlaritzaren ikastetxe publikoen sartzeta.	
ARDURADUNA: «José Uruñuela» Udal Dantza Kontserbatorioa.	URTEA: Zehaztu gabe.
ADIERAZLEAK: Udalak Dantza Kontserbatorio Profesionalean egindako inbertsioa, ikasle kopurua ikastetxe publikoen sarean sartu ondoren, ikasleen gogobetetze-maila.	

4.5. PLANAREN KUDEAKETA-EREDUA

GOBERNANTZA-SISTEMA

Plan honen gobernantza-sistemaren bidez, aurreikusitako helburuak nola bete behar diren antolatzeko eta egituratzeko prozesuak eta praktikak zehazten dira. Atal honetan, erabakiak hartzeko, gardentasunerako eta kontu emateko egiturak eta prozedurak aztertzen dira.

Estrategia berriak hasiera-hasieratik barne hartzen ditu Gasteizko herritarrak, Udala eta intereseko administrazio publikoak, baita hiriko kulturaren arloko elkarteak, sektoreak eta profesionalak ere.

Gobernantza-eredu horretan, **herritarrak** funtsezko eragile aktiboa dira hiriaren kultura-espektroaren barruan, kultura gizartea eraldatzeko eta aldatzeko eragile nabarmena baita. Horrela, plan honek kulturaren kudeaketa gero eta horizontalagoa eta entzute aktiboagoa bilatzen ditu, gizartea barne hartuz eta gaur egungo eskaerei erantzunez. Bestalde, **elkarteen sarea, eta hiriko kultura-arloko eragileak, enpresak eta profesionalak funtsezkoak dira** Planaren gobernantza-sisteman. Gasteizko kultura-ekintza garatzen duten motorra dira, eta horien eginkizuna funtsezkoa da planteatutako erronkei aurre egiteko eta estrategia horren doikuntzetan eta hobekuntzetan aktiboki parte hartzeko orduan. Prozesu horri erantzuteko, hiriak **Kultura Elkargunea** du, kultura-proposamenak eztabaidatu eta lantzeko tresna moduko bat. Kultura Elkargunea eremu funtzional eta praktiko bat balitz bezala finkatu behar da, aukerak sortuz eta hiriko kultura-sektorearen eta, oro har, herritarren ideiei balioa emanez.

Gainera, aldi behin **galdeketa soziologikoak** egingo dira, herritarrek kulturaren arloan zer behar dituzten ezagutzeko.

Bestalde, azpimarratu behar da Gasteizko 2024-2028 kultura-estrategian konpromiso gisa finkatu dela **kultura-politika publikoekin koordinatzea eta lerrokatzea**, Administrazioaren maila guztietan. Gasteizko Udala, Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza dira gobernantza-sistema honetan sartu behar den administrazio publikoaren zatirik handiena.



ISILK SILENCIO

De 5 a 7 años
5 - 7 urte bitartekoak

¡Mamá!
¿Cómo son las cucueltas
antes de casarse?

Kultura-arloa **Gasteizko Udalak** kudeatzen du batik bat, zehazki, **Kultura Zerbitzuak**. Gaur egun, Kultura Zerbitzua **zazpi kultura-ataletan** egituratzen da plan estrategikoaren ekimenak eraginkortasunez garatzeko.

Helburuak behar bezala koordinatzen eta betetzen direla bermatzeko, **topagune bat behar da, eta, Kultura Zerbitzuko atalez gain, topagune horretan etengabe parte hartu behar dute hiriko kultura-jarduerarekin lotuta dauden udal-zerbitzu guztiek**. Horretarako, **aldebiko edo zerbitzu arteko batzordeak eratuko dira**, proiektu partekatutako diseinatzeko, modu koordinatuan kudeatzeko eta horien jarraipena eta ebaluazioa egiteko. Azken batean, kultura hainbat eremu (ez bakarrik Kultura Zerbitzua) barne hartzen dituen zeharkako esparrua da, eta sailen arteko lankidetzarekin osatzen da.

Politikari dagokionez, **Euskara, Kultura eta Hezkuntza eta Kirola, Osasuna eta Garapenerako Lankidetzaren Batzordean** (bertan ordezkaria dute alderdi politiko guztiek) emango da planaren garapenaren berri.

Bestalde, gainerako administrazioekin, hau da, Eusko Jaurlaritzarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin, nolabaiteko koordinazioa izan behar da. Horretarako, lehendik dauden lan-espazioak erabiliko dira, kulturaren arloko politika publikoari koherentzia emateko eta ebaluazio-prozesuen plangintzak eta emaitzak partekatzeko.

Azkenik, **gardentasuna** da, informazio publikorako eskubidearekin batera, plan estrategiko honetan Udalaren jarduna zuzenduko duen beste zutabeetako bat. Horregatik, plangintzako informazio guztia eta jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak (kontu-emate gisa hartuta) jendearentzat eskura egongo dira Udalaren webgunearen bidez. Zentzu horretan, **governantza-sistemak aurrez aurre kontu emango die** herritarrei eta interes-eragileei, Kultura Elkargunearen gisako plataformak erabiliz.

PLANAREN EBALUAZIO-SISTEMA

Gasteizko 2024-2028 Kultura Plan Estrategikoak datozen urteetarako lerro estrategiko eta esku-hartze nagusiak zehazten ditu. Hala ere, estrategia horren hedapen eta ezarpen eraginkorrerako, **urteko kudeaketa-planak** egingo dira. Kudeaketa-plan horietan zehatz-mehatz eta eraginkortasunez ezarriko dira zehaztutako erronkak betetzeko egin behar diren zereginak eta esku-hartzeak. Gainera, kudeaketa-plan horiek ezinbestekoak izango dira plan estrategikoaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.

Ebaluazio- eta jarraipen-sistema hori funtsezkoa izango da planifikatutako kultura-jardueraren garapenari buruz etengabeko feedback bat lortzeko. Gainera, esku-hartzearen balorazioak **esperientzia-lezioak** emango ditu, **gero eta optimizatuagoa eta eraginkorragoa izango den kultura-sistema bat eraikitzeko**. Horrela, jarraipena eta ebaluazioa oso baliagarriak izango dira Plana nola hedatzen ari den eta ezarritako programek nola eragiten duten jakiteko; baina, horrez gain, funtsezko informazioa emango digute, hobera egin ahal izateko. Horretarako, eredu honek behar bezala erantzuten dio erronkak eta ekintza-lerroak birbideratzeko gai izango den jarraipen-sistema bat integrazteko beharrari, betiere gaur egungo gizartearen panorama oso aldakorra dela kontuan hartuta

Zehatz-mehatz esanda, eta epe ertainerako plan estrategiko bat dela aintzat hartuta, honako une hauetan definitzen da jarraipen- eta ebaluazio-plana:

- **Urteko kudeaketa-planetan definitutako lan-planaren urteko jarraipena**, jarduera-memorien bidez. Memoria horien bidez ekintzen betetze-maila neurtuko da eta urtero lortutako aurrerapenak jasoko dira.
- **Bi urtez behingo ebaluazioa, 2026. eta 2028. urteetan.** Ebaluazio horiek esku-hartzearen emaitzak islatuko dituzte, modu finkoan eta ebidentziekin, eta hurrengo urteetarako plan estrategikoan txertatu beharreko doikuntzak zehaztuko dituzte. Berrorientazio horretan adierazle eraginkortasuna hartuko da kontuan, baita garatutako ekintza-lerroen eta lan-prozesuen egingarritasuna eta egokitasuna ere.
- **Azken ebaluazioa, 2028. urtean.** Ebaluazio horrek zehatz-mehatz aztertuko ditu Plan Estrategikoaren emaitza



orokorrak, eta Planaren bidez sortutako eragin kualitatiboa eta kuantitatiboa zehaztuko du.

Arestian esan dugun bezala, gobernantza-eredu parte-hartzailea eta irekia izanik, jarraipenak eta ebaluazio-txostenek emandako informazioa publikoa izango da ebaluazio-fase bakoitza amaitzean. Gardentasuna eta kontu ematea Plana gobernu irekiaren printzipioen arabera eraikitzen dela ziurtatzen duten mekanismoak dira.

Ebaluazio- eta jarraipen-prozesuen ardurak Gasteizko Kultura Zerbitzuarena da. Zerbitzu horrek kanpo-auditoria bat izango du bi urtez behingo eta amaierako ebaluazioetarako, horrela, prozesuetan independentzia bermatu ahal izateko.

JARRAIPENERAKO FUNTSEZKO ADIERAZLEAK

Planteatutako jarraipena eta ebaluazioak egin ahal izateko, adierazle-sistema egoki, sendo, egonkor eta neurgarri bat behar da; izan ere, noizean behin ezarritako esku-hartze kulturalari buruzko irudi bat emango digu sistema horrek, ikuspegi kuantitatibotik zein kualitatibotik.

Gainera, adierazle horiek ebaluazioaren dimentsio guztiak jasoko dituzte: lan-prozesuaren analisia, emaitzak eta eragina edo inpaktua. Jarraian, adierazleen aginte-taula jasotzen da, esku-hartze lerroen arabera:

ESKU-HARTZE LERROAK	FUNTSEZKO ADIERAZLEAK (*)
BALIO-KATEAREN FASEETAN KULTURA-PROGRAMAZIOA BULTZATZEA	<ol style="list-style-type: none"> 1. Kultura-jardueren kopurua (sektorearen eta auzoaren arabera banatuta). 2. Sustatutako deialdien kopurua (sektoreka). 3. Deialdietan egindako inbertsio ekonomikoa (sektoreka). 4. Diruz lagundutako enpresa/erakunde/pertsona kopurua (sektoreka). 5. Kultura-arloko enpresen eta enpleguen kopurua (sektoreka).
KULTURARA SARBIDE UNIBERTSALA	<ol style="list-style-type: none"> 6. Parte-hartze/erabilera maila kultura-arloko programazioan/ ekipamenduetan. 7. Programazio/ekipamendu kulturalen ezagutza gizartearen aldetik. 8. Kulturako udal-tresnen sarrera/erabilera kopurua.
ERAKUNDEEN, SAILEN, ARLO PUBLIKO-PRIBATUAREN ETA KULTURA-ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA INDARTZEA	<ol style="list-style-type: none"> 9. Udalak parte hartzen duen aktibatutako lankidetzaren kopurua. 10. Partekatutako proiektuen kopurua. 11. Lankidetzaren itzulera sozioekonomikoa.
GASTEIZ KULTURA-ARLOKO ERREFERENTE BIHURTZEA	<ol style="list-style-type: none"> 12. Udalaren kultura-jarduerarekiko balioespen/gogobetetze orokorra. 13. Estatuko eta nazioarteko sareetan izandako parte-hartze kopurua. 14. Udalaren kultura-jardueraren eragin ekonomikoa. 15. Hiriko kultura-jardueran parte hartzen duten nazioarteko kultura-eragileen ehunekoa. 16. Hiriko kultura-jarduerara joaten diren lurraldetik kanpoko ikus-entzuleen ehunekoa. 17. Estatuko eta nazioarteko komunikabideetan Gasteizko kultura-ekitaldiei buruz emandako informazio kopurua.
KULTURA ZERBITZUAREN ANTOLAMENDU ERAGINKORRA GARATZEA	<ol style="list-style-type: none"> 18. Prozesuen eraginkortasuna aztertzea (emaitzak-kostua). 19. Prozesuen efizientzia aztertzea (lortu diren eta lortu nahi diren emaitzak). 20. Langileen gogobetetze-maila.

(*) Ahal den guztietan, datuak **sexuaren, adin-tarteen, hizkuntzaren, jatorri soziokulturalaren eta aniztasunaren arabera** bereizita egongo dira.

■ PLANAREN FINANTZAKETA



2024-28 Kultura Plan Estrategikoan jasotako ekintzak finantzatzeko, Kultura eta Hezkuntza Sailaren aurrekontuan egon ohi diren urteko aurrekontu-partida batzuk berrorientatzea aurreikusten da. Era berean, datozen lau urteetan «Plan Estrategikoa» izeneko partidari aurrekontua pixkanaka handitzea aurreikusten da, ekintza berriak abian jartzeko. Horretarako, lerro estrategiko bakoitzean eta datozen lau urteetako bakoitzean egin beharreko ekintza guztien aurrekontuaren balioespina egin da.

LERRO ESTRATEGIKOAK	2025	2026	2027	2028
1. LERRO ESTRATEGIKOA Balio-katearen faseetan kultura-jarduera sustatzea	175.000	242.500	280.000	335.000
2. LERRO ESTRATEGIKOA Kulturara sarbide unibertsala izatea	40.000	30.000	10.000	20.000
3. LERRO ESTRATEGIKOA Erakundeen, sailen, arlo publiko-pribatuaren eta kultura-eragileen arteko lankidetzak	-	-	-	-
4. LERRO ESTRATEGIKOA Gasteiz kultura-arloko erreferente bihurtzea	50.000	80.000	178.000	153.000
5. LERRO ESTRATEGIKOA Kultura Zerbitzuaren antolamendu eraginkorra garatzea	-	-	-	-
GUZTIRA	265.000	352.500	468.000	508.000

Edonola ere, aurreko taulan jasotako aurrekontu-aurreikuspenetarako, behar adina kreditu onartu behar da urtero.